

**FALTSIFIKAZIOAK EUSKAL TESTUETAN:  
HIZKUNTZAREN HISTORIAREN AZTERKETAN URRATS BERRIAK**

**Oier Duque Narcue**

**Joseba A. Lakarra tutorearen zuzendaritzapean,**

**UPV / EHU  
LETREN FAKULTATEA  
2019-2020 Ikasturtea  
Euskal Filologia**

**Laburpena:**

Ezagun denez (cf. Mounole & Lakarra 2018) euskararen corpusak arazo larriak ditu haren laburtasun eta urritasunaz gainera. Testuen ezagutza ere ez da garatu tradizio aurreratuago batzuetan bezala eta are lekukotasun paregabe zenbait (adib. Landuchioren hiztegia, cf. Mitxelena 1958) denbora luzez aztertzeke izan da garrantzirik gabekoak balitz bezala.

Jakinik (cf. Mitxelena 1963) gure arbasoek faltsifikatzeko orduan ez hizkuntza bitarteko iruzurrak baizik bestelakoak egin ohi zituztela, funtsean, ondoriozta liteke faltsifikazioek ere badutela hizkuntz lekukotasun gisa baliorik garai bereko gainerakoek legez; aurrekoak garrantzi apartekoa izan lezake gurea bezalako corpuseko hizkuntzetan eta, ondorioz, haren historiaren eta filologiaren ikerketan.

Lan honetan lau euskal testuren<sup>1</sup> (Kantabriarren Kantua, Andramendiko Idazkiak, Britainiako kantua, Annibalen kantua) faltsifikazioen analisi historiko eta linguistikoa burutzen da, aipatutako corpusaren arazoetariko batzuk askatzeko edo arintzeko asmoz. Lana hurrengo ataletan banatuko da, hasteko sarrera bat, metodologiari buruzko azalpen bat, azterketen atala, non azterketa historiko nahiz linguistikoa burutuko den eta azkenik lanaren ondorioak azalduko dira, lanari bukaera emateko erabilitako bibliografia probestuko da eta aztertu testuak eranskin moduan emango dira. Saio honek, halere, ez du aztertutako testu guztien arazoak konpontzeko asmorik ez modurik baina bai euskalaritzan gutxiegi landutako faltsifikazioen gaia eta corpusaren arazoak berrikusten hasteko urratsak emateko gogoia.

Horrenbestez, aztertutako testuen faltsifikazioaren arrazoi eta bideak zehaztu ditugu Caro Barojak (cf. 1985, 1992), Gorrochateguik (cf. 2008, 2011) eta bestek faltsifikazioak ezagutzeko irizpideez, hauetan erabilitako teknikez egindako azterketek guretzat duten interesa eta lekarketen laguntza agertu ditugu. Aurrekoaren osagarri metodologiko interesgarria iruditu zaigu faltsifikaziook tipologikoki sailkatzeko egin dugun lehen saiakera, Ciden (1994) balada-faltsifikazioak sailkatu eta ikertzeko proposamena gure aztergaira egokituaz.

Azkenik, testuen faltsifikazio izaera ziurtatzen duten ezaugarriez gain haien hainbat bereizgarri linguistiko ere analizatu dira, lekukotasunoi buruz dakiguna sendotzea helburu. Aurreko guztiak testuen finkapenarekin lotura estua du, eta ahal izan dugun neurrian alderdi hau ere ukitu dugu aitzindarien zenbait irakurketa eta azalpen zehazten eta zuzentzen saiatuaz eta berriak proposatuaz.

**Giltza-hitzak:** faltsifikazioak, euskal filologia, euskararen historia, euskara arkaikoa, testuen finkapena. Kantabriarren Kantua, Andramendiko Idazkiak, Britainiako Kantua, Annibalen Kantua.

---

<sup>1</sup> Lau testu hauek gure lanaren oinarria badira ere Altabizkarko Kantua ere baliatu dugu zenbait ohar emateko, eranskin moduan emana da.

## Aurkibidea:

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>4</b>
1.1. Status Quaestionis .....	4
1.2. Faltsifikazioak.....	4
1.3. Gure testuak.....	6
1.4. Aurrekariak.....	7
1.5. Helburuak.....	8
<b>2. Metodologia.....</b>	<b>9</b>
2.1. Kantabriarren Kantua.....	10
2.2. Andramendiko Idazkiak.....	11
2.3. Britainiako Kantua.....	11

2.4. Annibalen Kantua.....	11
2.5. Faltsifikazioen funtsa.....	12
2.6. *Eranskina: Altabizkarko Kantua.....	12
<b>3. Azterketa.....</b>	<b>12</b>
3.1. Azterketa historikoa.....	12
3.1.1. Iburguen-Cachopin kronika.....	12
3.1.1.1. Leloren Kantua.....	15
3.1.1.2. Kantabriarren Kantua.....	18
3.1.1.3. Andramendiko idazkiak.....	19
3.1.2. Britainiako Kantua.....	20
3.1.3. Annibalen kantua.....	22
3.2. Azterketa linguistikoa.....	22
3.2.1. Kantabriarren Kantua.....	22
3.2.2. Andramendiko Idazkiak.....	26
3.2.3. Britainiako kantua.....	29
3.2.4. Annibalen Kantua.....	31
3.2.5. *Eranskina: Altabizkarko Kantua .....	31
<b>4. Ondorioak.....</b>	<b>32</b>
<b>5. Bibliografia.....</b>	<b>34</b>
<b>6. *Eranskinak.....</b>	<b>35</b>
6.1. Kantabriarren Kantua.....	35
6.2. Andramendiko Idazkiak.....	37
6.3. Britainiako Kantua.....	38
6.4. Annibalen Kantua.....	39

## 1. Sarrera

La historia de las lenguas goza, en comparacion con otras historias especiales, del privilegio de disponer de un material que, en la medida en que está bien fechado, queda más allá de toda sospecha de falsedad. En efecto, si hay falsedad consciente o inconsciente, esta suele reducirse al contenido y no a la forma lingüística en que va expresado (Mitzelena 1963: 14)

### 1.1. Status quaestionis

Euskal Ikasketen sailean ikasle garenon artean *faltsifikazioa* usu entzun ohi den kontzeptua dela esango nuke, behintzat Euskararen Historia edo Gramatika Historikoaren alorretan. Alor horietan apur bat trebatutakook askotan entzun ditugu,

pasadaz bada ere, Leloren Kantuari buruzko komentarioak, edota Andramendiko Idazkiei buruzkoak, eta gure esparrutik apur bat aldenduz gero, baina ez gehiegi, filologiaren edota historiaren mundutik gertu daudenek sarri entzungo zituzten erdi aroko kanta epikoei buruzkoak, interes politiko/erlijiosoek gidatzen zituztela kantu horiek, zenbaitetan nolabaiteko paralelismoa ezarri genezakeela kanta horien eta “propaganda” modernoaren artean, etab. Faltsifikazioen gaia euskal ikasketen alorrean eskasegi ikertu den gaia dela deritzot, eta beharrezko ikusten dudan esparru honetan aurrerapausu bat ematea da nire nahia, urrats apala bada ere; faltsifikazioek, iragan urrunei buruz gutxi irakatsi arren, sortu ziren garaiari buruz asko esan dezakete oraindik.

Lan honetan, euskal testuen esparruan egin izan diren zenbait faltsifikazio ezagun miatuko dira, eta faltsifikazio horien sorreran eragin zuten faktoreak ikertuko, aipatutako interesak bilatuz, hain zuzen, dela politiko/ideologikoak, Kantabrisma edo Erromantizismoa kasu. Horrezaz gain ikuspegi linguistikoa ez da aparte geratuko, eta azterketa linguistikoa bere zeresana izango du gai honen trataeran, hau da, ez naiz datu soziologiko edo historiko hutsetara mugatuko. Horien bidez, argiki apokrifotzat ditugun testu hauek aztertuz haien faltsutasuna azpimarratuko da.

## 2. Faltsifikazioak

Lan honen lagin diren testuen aurkezpenari ekin aurretik aditzera ekarri nahiko nituzke faltsifikazioak. Ez faltsifikazio konkrituak, “faltsifikazioaren” gaia baizik, berebizikotzat jotzen baitut ikuspegi “orokortu” bat aurkeztea kasu konkrituei heldu aurretik.

Gai zabala dugu faltsifikazioena, zabalegia honelako lan apalarentzat, agian, baina halere horri lotuko natzaio ahal dudan neurrian, lehenbizi, nire aitzindari hurbilak aipatuaz.<sup>2</sup> Hauek, faltsifikazioen esparrua jorratu dutenak, modu orokor batean aurkeztuko ditut, geroago aipatuko diren aitzindari konkrituetatik bereizirik; irakurleak, halere, ikusiko du izen bat errepikatuko dela, bere obra zabalak dezente aberastu baitzuen euskal ikasketen esparrua ikerketa zientifikoari dagokionez, linguista ez bazen ere. Bereizi agertuko direla esan dut gero landuko diren testuekin ez baitute lotura zuzenik (aurretik aipatutakoaz aparte), baina faltsifikazioen munduarekin eta gure

<sup>2</sup> Hurbilak, urrunak aipatzen hasiz gero euskal historiografia ia guztia eta filologiaren zati handi bat ukitu beharko baintuzke, Vinson eta Urquijoz gainera, Larramendi, Oihenart eta beste asko barne. Neurri batean horretarako balia liteke Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* (1981). Ikus, orobat, Mitxelenak liburu honi egindako iruzkina.

gaiarekin duten lotura estua da oso eta lan honentzat berebiziko garrantzia izango dute. Autore hauek Julio Caro Baroja, Joaquín Gorrochategui eta Jesús Antonio Cid dira.

Lehenik Caro Barojaren 1992ko obra gogora ekarri behar da, bertan faltsifikazioen gaia zuzen zuzenean ukitzen baitu, gure lanarentzat oinarri-oinarrizko diren hainbat ideia azaleratuaz. Ideia horietako batek gure testuen azterketa linguistikoaren atala gidatuko du, Caro Barojak (1992: 24) agertzen baitigu faltsutzaileak beti gehitzen diola zerbait faltsifikazioari, eta gehitutako elementu honek hasiera batean harritu egiten duela irakurle edo ikertzailea eta gero, aldiz, faltsifikazioaren izaera bera salatzen. Izan ere, lan honetan Caro Barojaren hitzok jarraituz, elementu hori bilatzen saiatuko naiz, obra horren faltsutasuna egiaztatzen digun giltza, alegia.

Jarraituz gure unibertsitateko irakasle den Joaquín Gorrochateguiaren lanak aipatu behar dira, 2008. eta 2011. urteetakoak, eta Iruña-Veleiako aurkikuntza epigrafikoekin lotutakoak, non hauen egiazkotasun eta faltsutasunari buruzko datu eta irizpide oso gogoangarriak ematen dituen, eta nahiz eta aurkikuntza epigrafikoen eta literarioen trataera berdina ez izan, lan honetan Gorrochateguiaren ideiek faltsifikazio bat alde historikotik azaltzen lagunduko digute; horregatik bere hitzok jarraitzen ahaleginduko naiz,

El reto consiste en desvelar las triquiñuelas de la verosimilitud, prestando atención al mismo tiempo tanto al marco general en el que se inserta la impostura como a los detalles concretos, a veces insignificantes, que constituyen el terreno de la especialización. Como en el fondo se trata de una ficción, de un relato repleto de guiños que recrea con elementos conocidos un paisaje falso aunque verosímil, por lo general añorado por el destinatario, el crítico no debe dejarse envolver por los hilos del relato ni por la ilusión desplegada ante sus ojos. Debe prestar atención preferente al «marco general en el que el falsario pretende colar su obra, ya que ese marco, tras una atenta observación, pasa a convertirse de soporte de la ilusión en delator de la impostura. (Gorrochategui 2011: 250-251).

Azkenik, gure gaiarekin nahiko loturik den egilea, behintzat erabilitako laginari dagokionez, Jesús Antonio Cid dugu, berak Europako herri poesian gertatutako zenbait faltsifikazio landu baititu, eta guk berariaz aztertuko dugun testua ez bada ere, euskal kanta jakin bat ere, alegia, Urthubiako Alhaba, garai batean apokrifotzat emana, gerora bere egiazkotasuna frogaturik ikusi duguna. Ciden 2015eko lanean oinarrituko naiz nire honetan, bereziki hark sortutako faltsifikazioen tipologian, hemen garatuko diren testuak sailkatzeko. Bere sailkapena osorik aurkeztea izango litzateke aproposena, baina gehiegi ez luzatzearen hemen bakarrik testu konkretuen sailkapena egitean aipatuko da zeharbidez (ik. Cid 1994). Bidenabar, tipologia honetan gure testu zenbait sailkatzea ez da erraz eta, beraz, tipologia konposatua edota hauen zehaztapenak aurkitzea espero da.

## 2.1. Gure testuak

Lan hau aurrera eramateko lau testu dira aukeratuak, horietako bi behintzat euskalaritzaren munduan aski ezagunak direla esango nuke. Hauek dira: Kantabriarren Kantua, bi zatitan bereizi ohi dena, alegia, Leloren Kantua eta Kantabriarren Kantua bereiziz<sup>3</sup>; eta Andramendiko Idazkunak; biak *Ibarguen-Cachopin* kronikan agertzen dira. Lehena, edo lehen biak, nahiago bada, izenak adierazten digunez, kanta bat da, hots, bertsoz osatutako testua, kanta epikoaren formatuan, Arriolabengoak azpimarratzen duen moduan:

Euskal Herriko historiarako asmatu izan den mito handi eta miresgarrietako batek merezi zuen propio idatzitako oda edo poema berezia, xumeago, bai, baina Iliada eta Odisea baten antzera, erromatarren aurkako guduen pasadizo heroiko eta gogoangarriak eta euskaldunen Erromarainoko periploa sekula eta betiko herriaren oroimenerako gordeko zituen (Arriolabengoa 2006: 186).

Bigarrena, ordea, prosazko testua dugu; egiazki bi testu dira, originalaren gaztelerazko itzulpenez lagundua, eta Mitxelenak (1954: 6) aipatzen duen bezala, faltsifikazioak izan arren interes linguistikoa mantentzen dutenak.

Ezezagunagoak diren testuak Britainiako Kantua, kronologikoki besteetatik nahiko gertu kokatua, eta aski modernoago den Annibalen Kantua dira. Azken bi testu hauek erronka handiagoa izango dira, haiei buruzko lana ia ezerezetik hasi beharagatik noski, baina haien ezagutzan aurrerapauso xume bat egitea espero dut.

## 2.2. Aitzindariak

GrAL hau burutzeko nire aitzindarien lanetan oinarritu nahi izan dut eta haiei esker burutu dut hein batean nire egitekoa. Esana dugu euskal ikasketen munduan faltsifikazioen esparrua ez dela nahi adina jorratu, eta lan gehiagoren faltan dela, eta horregatik, hain zuzen, are eskertzekoago da zenbait autorek egindako lana horrelako gai bati “substratu” bat ematerakoan edo ingurua zedarriztatzeko orduan. Autore hauek guztiak bibliografian behar bezala aipatuta agertuko dira, gizalegea denez, baina haien artean nire lanarentzat garrantzitsuenak hona ekarri nahi nituzke.

Lehenbizi aztergai ditugun testuen moldatzaileak ditugu, beraien lanen moldaketa gabe lan bereziki zaila izango baitzen honakoa. Hauek Julen Arriolabengoa (Leloren Kantua), Koldo Mitxelena (Andramendiko idazkunak), Ibon Sarasola (Britainiako Kantua) eta Patri Urkizu (Annibalen Kantua) dira.

<sup>3</sup> Lan honetan, irakurketa errazteagatik Kantabriarren Kantuak idazlan osoari egingo dio erreferentzia. Hau urratzen den kasuetan autoreak emango du erreferentzia aldaketaren abisua.

Lan honetan ezagunago eta polemikoago izan den testua, bere “garaian”, behintzat, dudarik gabe Leloren Kantua izenaz ezaguna dena dugu. Testu hau, hautatukoaren artean “polemikoena” izaki, lehenbizi sortu zena baita, eta Humboldtten lana alde batera utziz eta lan honen ikuspegi kritikoarekin bat eginez, bide bertsutik ikertu zuen lehena Julio de Urquijo izan genuen, bere 1910ko “La tercera Celestina y el canto de Lelo” eta 1922ko “La Crónica Iburgüen-Cachopín” artikuluetan, kantuaaren apokrifotasuna defendatuaz Humboldtten ideien aurka. Denboraren haria jarraituz, gerra zibilak eta ondorengo diktadurak sortu zuten zuloan jauzi eginaz, 1985. urtean kokatzen gara. Urte honetan kaleratu baitzen beste Julio baten, alegia, Julio Caro Barojaren *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, kapitulu osoa eskaintzen diolarik beren beregi Leloren Kantuari. Urtebete beranduago, 1986an, eta aurreko lanari erreferentzia eginez, Mitxelenak “Contra Lekobide” artikulua kaleratu zuen, ziurrenik obra hau ikertzeko artikulurik zehatz eta eraginkorrena, momentuz. Azkenik, guregandik gertuago, Julen Arriolabengoaren 2008ko *Ibarguen-Cachopin Kronika: edizioa eta azterketa*<sup>4</sup> doktoretza tesia eta *Monumenta Linguae Vasconum* proiektuaren mintegiarentzat prestatutako “Los textos vascos en la Crónica Iburguen-Cachopín” aurkezpena aproposak ditugu gai hau behar bezala jorratzeko.

Ikertuko den bigarren testuak ez du hainbesteko arreta jaso, nahiz kronika berdinean bildua izan, eta hau garatzeko bibliografia urriagoa da, esanguratsua, halere. Testu hau, zehazki bi testu badira ere, Andramendiko idazkiak izenaz ezagutzen direnak, Koldo Mitxelenaren 1964ko obra garrantzitsuan, alegia, *Textos Arcaicos Vasconum* agertzen da, baina hamar urte lehenago Mitxelenak berak eta Milagros Bidegainek aztertu zuten “Las escrituras apócrifas de Andramendi” artikuluan (1954). Azkenik eta aurreko testuarekin gertatzen den bezala, kronika berdinean agertzen baitira, Arriolabengoaren lanetan berraztertua izan da.

Bretainiako Kantuari dagokionez, testu hau nahiko ezezaguna izan da. Edizioa Ibon Sarasolaren “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos” lanetik hartu izan da, eta horrez gain haren aurkitzaileak, Alfonso Otazuk 1975ean argitaratutako artikulua aurkitu dut soilik.<sup>5</sup>

Azkenik, laugarren testuari dagokionez, Annibalen Kantuari buruzko informazioa eskas da. Edizioa Patri Urkizuk 1992an argitaratutako *Agosti Chahoren*

<sup>4</sup> Tesia argitaratu gabea bada ere eskuragarri dago web orri honetan:

[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Julen\\_Arriolabengoa\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Julen_Arriolabengoa_TESI.pdf)

Azken Sarrera: 2020/06/05

<sup>5</sup> Badira zenbait ohar Lakarra, Urgell & Biguri 1983ko liburuan.



*bizitza eta idazlanak 1811-1858* obratik hartu da, eta horrez gain ez da hari buruzko artikulu gehiagorik aurkitu garai modernoetan.<sup>6</sup>

Aurrekoak nire erreferentzia guztiak ez badira ere, lan hau burutzeko garrantzitsuenak izan dira, aurretiaz “faltsifikazioen” gaia jorratu duten Gorrochategui eta besterekin batera. Lana osotzeko erabilitako beste obra guztiak hauekin batera bibliografia atalean agertuko dira.

### 2.3. Helburuak

Gure helburu nagusia euskal literaturaren munduko faltsifikazioei buruz dugun informazio apurra luzatzea da, laburki bada ere. Horretarako aztergai ditudan testuen faltsutasuna frogatu baino gehiago, azpimarratuko da, horretarako froga linguistikoak bilatuz eta froga historikoen babesari baliatuz. Bestalde faltsifikazioen izate bera arrazoitzen saiaturiko naiz, horretarako testuinguru historikoan murgilduz eta beste hizkuntzetako faltsifikazioen zenbait kasu erabiliz. Azkenik, testuen finkapenean urrats bat ematen saiaturiko naiz, horretarako Ciden sailkapen tipologikoaren barnean kokatuaz.

Sarrerari bukaera eman baino lehen Mitxelena maisuaren hitz batzuk ekarri nahi nituzke gogora, oso aproposak, nire aburuz, behintzat, bereziki lan honetan jorratuko den gaiari buruz aritzerakoan;

no está de más repetir que la lengua vasca, aparte de su casi proverbial pobreza de documentos antiguos, padece de la escasa atención que se le ha venido concediendo, con muy honrosas aunque aisladas excepciones (Mitxelena 1963: 5).

Hitz hauek gogorarazten digute, bai niri behintzat, aurrean ditugunak, faltsifikazioak izanagatik ez direla garrantzi gabeak historiari eta bereziki hizkuntzari buruzko gure mugak apur bat hedatzeko. Haiei so eginez, iradokitzen dizkiguten garaiei buruz ezer gutxi ikasiko bide dugu, baina gogoan eduki behar, halaber, Caro Barojak bere 1992ko obran esandakoak: “Pero hay que advertir que, casi siempre, el falsificador introduce en lo que hace algo que desorienta y sorprende y que luego le denuncia” (1992: 24). Ez dira ahaztu behar hitzok, faltsifikazio batek bere garai errealari buruz asko irakatsi baitezake.

Zail dut nire aitzindarien parean jartzea; halere, espero dezagun etorkizunean lan honek edozeinentzat baliagarritasunen bat izatea gaia merezi duen moduan garatzeko.

## 2. Metodologia

---

<sup>6</sup> Zail da, halere, pentsatzea Chahoren inguruan idatzi duen norbaitek kantu honetaz aipurik ez egitea.

Lanaren metodologiaren azaltzeari ekingo diogu ondoren, geroko azterketan erabiliko diren testuen edizioen hautaketa azalduaz, azterketaren atalean erabiliko diren edizioak zeintzuk diren eta horiek hautatzeko arrazoiak emanez; bestalde, azterketaren atalean burutuko den lana aurkeztuko da, horretarako bidea azaldu ez ezik zenbait lanen hautaketa eta erabilera ere agertuaz.

Testu bakoitzaren edizioen nondik norakoei heldu aurretik euskal testuen corpusari buruz aritzea beharrezko da. Aztertu behar ditugun testuetatik hiru behintzat Euskara Arkaikoan koka ditzakegu, Kantabriarren Kantua, Andramendiko Idazkiak eta Britainiako Kantua, hain zuzen. Hauek horrela eta 2018. urtean agertutako *Euskararen Historia* liburua oinarritzat hartuz, Euskara Arkaikoko corpusari begiratu arin bat emango diogu jakingarri gertatzen baita ondoko azterketa guztiarentzat.

Lehenbizi corpusaren urritasunari lotuko gaitzaizkio; bigarrenik, corpusaren asimetriari, oso handia baita hau: aski izan bedi corpusaren %80a inguru Leizarragaren obrak, hots, itzulpenek (eta itzulpen oso hertsiek, gainera) betetzen duela kontuan hartzen badugu. Eta azkenik, eta hiruetatik ezaugarri on edo aldekotzat har daitekeen bakarra, heterogeneotasuna, bereziki Euskara Zaharraren corpusarekin konparatzen badugu, era askotako lekukotasun laburrak baititugu (otoitz, poema, gutun,...). Gure testuak hauetako hiru dira. Dakigunez, lekukotasun labur hauen artean baladek eta eresiek izan ohi dute interes biziena, aurreko garaietako mintzoak islatzen baitituzte, mende eta erdi lehenagokoak usu; hauetarik hurbilen errefraue bildumak ditugu, batzuk eta besteak garai honetako lekukotasun emankorrenak bere urritasun edo laburtasunean.

Testu hauen finkapenari so egiten badiogu, bestalde, ikusiko dugu hainbat ez daudela erabat finkaturik, Mitxelenak eta Bidegainek (1954: 6) aipatuari jarraiki, euskal ikasketen munduan hainbat inolako helburu linguistiko eta filologikori arreta eskaini gabe argitaratu baitira. Lan honetan, gainera bada ere honi itzuli bat ematen saiatuko gara testu hauek erabat finkatzea ezinezko bada ere, behintzat hipotesi batzuk eginez, beti ere aurretik aipatu Ciden tipologia sailkapena lagun. Cid bera oinarritzat hartuz kontuan dugu mistifikazioen tipologia bat eratzea zaila dela, irizpideak denboran zehar aldatu baitira, eta faltsifikazioa zer den edo zer ez esatea ere ez da berdin gaur egun edo antzinako garaietan, non testu bat moldatzea ez zen orain kontsideratzen dugun astakeria. Beraz GrAL honetan testu bakoitzaren sorrera prozesuari buruzko hipotesiek garrantzi handia izango dute, hauek autoreek berek egindakoak edota aurreko testuetatik kopiatutakoak diren jakiteko arrazoiak bilatuz.

Atal metodologikoaren azalpenari hasiera emanez, lehenik, aztertuko diren lau testuen hautatu edizioak iruzkinduko dira.

### 2.1. Kantabriarren kantua

Kantabriarren kantua<sup>7</sup> lantzeko hasiera batean Julio de Urquijok bere 1922ko “La Crónica Iburgüen-Cachopín y el Canto de Lelo” lanean ematen duen testuaren transkripzioa erabiltzea pentsatu nuen. Testuaren bertsio hau Wilhem Humboldten *Berichtigungen und Zusätze* 1817ko argitalpenetik zuzenean hartutakoa da, eta alemanierazko itzulpena ondoan duela ematen da. Esan bezala, hasiera batean lanari ekiteko bibliografia murriztagoa zenean, bertsio hau erabiltzea zen nire asmoa, baina Urquijok berak konbentzitu ninduen hau ez egiteko:

Si comparamos detenidamente el texto de Humboldt con el de la Crónica (vease el facsímile) observaremos que la lección del viajero alemán, sin ser completamente errónea, es bastante inexacta. Aparte de algunas variantes meramente ortográficas [...], hay en la transcripción de Humboldt manifiestos errores y correcciones que cabe discutir (Urquijo 1922: 462).

Urquijok aipatzen duen faksimila eskuratzea zail zenez, egindako edizio modernoena bilatzerari eta horren kalitatea ebaluatzeari ekin nion. Horrela aurkitu nuen Julen Arriolabengoak 2008 urtean burututako “Los textos vascos en la crónica Iburguen-Cachopín”, 2006ko bere doktorego tesiarekin batera, (hau argitaragabea baina interneten eskuragarria), GrAL honetarako ugari baliatu dudana. Lan eta tesi hauek Iburguen-Cachopin kronika hartzen dute beren gaitzat, eta logikoa denez, Leloren Kantuari nahiz Andramendiko Idazkiei atal bana eskaintzen diete.

Edizio hau 2008ko lanetik hartua da, formatua dela kausa eta hau aukeratzeko argudioak hiru dira:

- 1: Originaletik egindako transkripzioak dira, hots, lehen eskukoak.
- 2: Transkribaketa ahalik eta fidelena egiten saiatzen da, lexikoa gaurkotu gabe eta sintaxia zein morfologia aldatu gabe.
- 3: Gaur egungo irakurlearentzat prestatuak, hau da, edizio gaurkotua.

Beraz, aipatutako edizioa fidelena eta aproposena delakoan, hau baliatuko da gure egiteko honen muin den azterketa burutzeko.

### 2.2. Andramendiko Idazkiak

<sup>7</sup> Uler bedi kantabriarren kantua hitzak, kasu honetan, Leloren kantua ere bere barnean hartzen duela.

Testu hau lantzeko hasiera batean Mitxelenaren 1964ko *Textos Arcaicos Vascos* liburu klasikoan den transkripzioa erabiltzea pentsatu zen, edizio hau orokorrean zuzena baita, eta Humboldték emandako Kantabriarren Kantuarena baino askoz ere zehatzagoa, noski. Halere, behin Arriolabengoaren (2006: 234-235) liburua eskuratu ondoren, hori aztertzeari ekin genion, eta, kontuan izanik bi testuok kronika berdinekoak direla Andramendiko Idazkiei buruzko atala miatu nuen eta horren ondorioz edizio hau erabiltzea erabaki nuen. Horretarako arrazoiak, aurrekoan legez, egilea iturriaz zuzenean baliatzean datza, lanaren gaurkotasuna eta transkripzioaren zehaztasuna kontuan harturik egilea edizio paleografikora hurbiltzen saiatu baita, akats eta zuzenketei buruzko datuak zintzo agertuaz.

### **2.3. Britainiako Kantua**

Testu hau aurreko biak baino ezezagunago da, ziurrenik Ibarguen-Cachopin kronika entzutetsuaren parte ez izateak zerikusia izango zuen honetan, laugarren testuarekin gertatu bezala. Halere lekukotasun interesgarria da oso, eta hau lantzeko edizio klasikora jo dut, modernoagorik ez baitut aurkitu; beraz, erabili dudana bertsoa Ibon Sarasolak 1983. urtean “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos” lanean, Alfonso Otazuk emandakoan oinarriturik argitaratu zuena da.

### **2.4. Annibalen Kantua**

Garatuko den laugarren testuaren edizioari helduz, hau nahiko misteriotsua dela aitortu behar dut. Horretarako Patri Urkizuren (1992: 62-64) edizioa hartu da oinarri, autore beraren 2003ko “Balada Apokrifoen eta kritikarien saltsa-maltsez” artikulua batez lagundurik. Urkizuk (2003) dioenez, Agosti Chahok 1845. urtean *L’Ariel* egunkarian argitaratu zuen kantu hori.

### **2.5. Faltsifikazioen funtsa**

Hautatu edizioez aparte, gure lanean faltsifikazioak burutzeko funtsak bilatuko dira, hau da, zerk motibatatu zuen autorea testua sortzeko. Gorrochateguik faltsifikazio garaikideei buruz esandakoa honi ere aplikatu dakioke, “Los motivos para el fraude pueden ser múltiples: desde los estrictamente económicos hasta los de enemistad personal, pasando por una amplia gama de razones relacionadas con la fama o el renombre profesional”. (Gorrochategui 2011: 246). Beraz, gure ikerketa honetan obra bat faltsutzeko arrazoiak ere bilatuko dira.

## **2.6.\*Eranskina: Altabizkarko Kantua**

Azkenik, testu hau zehazki landuko ez den arren, azterketa linguistikoa burutzerakoan baliagarria gerta daitekela deritzogu, testu baten faltsifikazio izaera aitortzeko adibide ezin hobea den aldetik eranskin moduan probestuko da lagintzat hartu diren aurrekoen gainean egindako lanaren ulerpena hobetzarren.

### **3. Azterketa atala**

#### **3.1 Azterketa historikoa**

Edozein testu osotasunez ulertzeko esanguratsu eta are erabakigarri izan daiteke noiz eta nola idatzi zen jakitea, are gehiago, zerk motibatu zuen testuaren idazketa. Horretarako lekuko bakoitzaren historia ezagutzeak, gainerik bada ere, hura ulertzen lagunduko gaitu eta, halaber, hark historia ulertzen.

Aunque las falsificaciones de antiguos cantos populares nos dicen nada o muy poco sobre la tradición popular real, sí nos revelan mucho sobre el momento histórico en el que las mixtificaciones se producen (Cid 1994: 507)

Beraz, testuak egoki lantzeko azterketaren atalari ekingo diogu, iradoki den bezala, analisi historiko bat eginez.

##### **3.1.1. Iburguen-Cachopin Kronika**

Leloren kantua, aurretik aipatu bezala, Iburguen-Cachopin kronika ezagunean agertzen da, eta logikoa denez, kronika honen ibilbidea azalduz baino ezin daiteke hasi azalpen hau. Hemen emango diren datuak, batez ere, Julen Arriolabengoak denon esku jarri zuen tesitik ateratakoak izango dira, bai kronikari dagozkionak, bai Kantabriarren Kantua nahiz Andramendiko Idazkiak testuei dagozkionak, bere lan gogorrari esker denon eskuetan utzi baitu hau bezalako testu zail baten edizioa, bai alderdi fisikotik nahiz burokratikutik, hau bezalako kronika esanguratsu baten ikerketari irteera erraza emanek. Beraz, kronikaren historiari behingoz helduko diogu, eta kontuan hartuko dugu sarrera honek Andramendiko Idazkiak ere ukitzen dituela, kronika honen parte baitira Leloren Kantuarekin batera.

Iburguen-Cachopin izenez ezagutzen den kronika, XVI. mendeko eskuizkribua multzoa dugu, lan erraldoia egiazki, 184 koaderno eta hiru liburutan sakabanatua. Ale bakarra gordetzen da ez baitzuen inprimategira iristerik lortu, eta bi artxibotan sakabanatua izateaz gain bere egoera, Arriolabengoak dioskunez, nahiko txarra da, zenbait koaderno mozturik, elbarri edo osotu gabe baitaude eta hezetasunak edo animaliek kaltetua. Arriolabengoak ez ezik Mitxelenak ere aipatu zuenez, egoera ez da ona, filologoen lana zailduz, eta kronikaren egoera txarrak interpretazio okerretara

hainbat autore eraman ditu. Honakoa zioen Mitxelena, ez soilik kronika honi buruz, baina bai hau kontuan harturik: “Los fragmentos, desgraciadamente, son por lo común escasos y sumamente incompletos, y las copias en que nos han llegado son a veces sumamente corruptas” (Mitxelena 1960: 42).

Lanaren konplexutasuna handia da, ez baitu ia batasun tematiko edo estilistikorik eta, horrezaz gain, hainbat eskuz osatua dago: 184 koaderno originaletatik 70 soilik gorde dira, 65 Bizkaiko Foru Artxiboan eta 5 Madrilgo Biblioteca Nacional-ean; guztira 1794 folio.

Kronika honek garrantzi handia izan du euskal ikasketen arloan, gordetako euskararen lekukotasunei, bereziki kantuei, esker, eta horren ondorioz zenbait autore ezagunek haien lana burutzeko erabili zuten, Juan Carlos Guerra, Urquijok, Ibon Sarasola eta aipatu bezala Mitxelena bera ere tarteko.

Kronikaren historiarekin jarraituz, hau “Crónica de Iburgüen” edo “Crónica de Iburgüen-Cachopín” izenez ezaguna den arren, egiazki *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaina* izendatu zuten autoreek. Urtetan zehar Iburguen autore bakartzat hartu bazen ere, Cachopín izan omen zen autore nagusia, baina geratzen diren izkribuak Iburguenen eskuz eginak dira. Arriolabengoak azaltzen digenez:

Antza denez, Iburguenek materialak eskuratu egiten zituen eta Cachopínek lana antolatu eta erredaktatu. Jarraian, Iburguenek bere lumaz osatu zuen bere eskuizkribua, gaur egun aurki daitekeen bakarra. Geroago, ordea, Iburguenek berak jatorrizko bertsioari hainbat material erantsi zizkion, Cachopínek, lana bukatutzat eman zutelako, hil egin zelako edo ez dakigun arrazoiren bategatik, lanari utzi zionean (Arriolabengoa 2006: 21).

Aipatutako egile hauek Juan Iñiguez de Iburguen eta Garcia Fernandez Cachopin kronistaren semea izan ziren. Arriolabengoak Iturrizaren lana aipatzen du, eta honek dioenez, autoreek idazlanaren idazketari Bizkaiko jaunaren aginduz ekin omen zioten. Egiazki Iturrizak Iburguen eta “beste pertsona bat” aipatzen ditu, geroago agertuko baitzen Cachopinen izena kronikari dagokionez, autore nagusia izan zela dirudien arren.

Kronikaren idazketa 1558-98 urteen artean kokatu da, horretarako Cachopínek idatzitako pasarteetan emandako datuak eta pertsonaia ezagunei erreferentziak erabiliaz. Idazketa, horrelako obra erraldoi batean itzarotekoa denez, idazketa gorabeheratsua izan zen. Aurretik esan bezala, hiru liburukitan banatutako kronika da, baina, dirudienez, idatzi zen lehenengo liburukia II.a izan bide zen, bertan Muxikako jaunari eginiko eskaintza eta irakurlearentzako sarrera agertzen baitira. Ondoren, III.a idatzi zela dirudi, eta azkenik I.a. Ordena berdina jarraitzen da liburukien osotasunari dagokionez, II.

liburua egituraz sendoena baita, III.ak jarraiki eta azkenik I.a, ahulena egiturari dagokionez.

Cachopin 1600. urtearen inguruan desagertu zen proiektutik eta ondorioz kronika Iburguenen eskuetan geratu zen, Ibarruriko Oka auzoan, eta bigarren honek bertan material berriak txertatu zizkion obrari, aurretik aipatu tematika eta estilistika batasun falta sortuz, edo, behintzat, areagotuz: “Baina bistan da Iburguenek ez zuela Cachopínek zuen ofizioa idazteko orduan, eta ez zen gauza izan Kronikaren tonu estilistikoari eusteko. Gehitutako material horiek loturarik gabe erantsirik geratu ziren han-hemenka, koaderno anitzen bukaera aldean” (Arriolabengoa 2006: 23)

Behin Iburguen zahartuta eskuizkribua bere seme zenaren, Juan de Iburguen Okaren eskuetara pasatu zen, eta honek zenbait material ere txertatu zizkion, genealogia oharrak batez ere. Fernando de Oka haren suhi zenak, XVII. mendearen hasieran ere zenbait material gehitu bide zituen. Eskuizkribua gordetzen zuen etxea eskuz aldatuz joan zen, eta Ibarruriko Oka auzoko Iburguen etxea Markinako Mugartegi etxeok eskuratu izanak kronika 1760. urtean Mugartegi jauregian topatzea ahalbidetu zuen.

Hemen hasiko dira guretzat ezagunagoak diren izenak agertzen, eta hauetako lehena Juan Ramon Iturriza da. Iturrizak, Mugartegiko jaunak hala eskaturik, jauregiko liburutegiaren antolatzeari ekin zionean aurkitu zuen eskuizkribua. Eskuizkribua jada egoera txarrean zegoen, eta hainbat koaderno galdu edo mozturik. Halere, Iturrizak lanaren prestakuntza burutu zuen, kronikaren materialak koadernatu eta antolatu baitzituen, lana ikerketarako prest geratuaz.

Iturrizak berak, azterketa sakona egin zuen, eta haren ondoren zenbait ikerle etorriko ziren, Mogel, Labayru eta akaso, Humboldt. Azken honen kasuan ez dago argi eskuizkribuarekin zuzeneko kontaktua izan zuen, nahiz eta Mugartegi jauregian bere egonaldia dokumentatua den, 1801. Urtean, hain zuzen, eskuizkribua lantzeko denbora falta izan omen zuen. Dena dela, Humboldtek 1817an Leloren Kantuari buruzko lana argitaratzerakoan kantu hau, eta haren gordetzaille zen kronika ezagutzera eman zituen, Iturrizak aurretik aipatuak baziren ere. Artikulu honek sortu zuen polemikarekin hasi zen egundaino dugun ezagutza, hari esker Urquijo edo Caro Barojaren artikulua agertzea ahalbidetu baitzen.

Eskuizkribua 1920. urtera arte egon zen Mugartegi jauregian, eta urte honetan Juan Mugartegik Bizkaiko Aldundiari eman zizkion bere eskutan zeuden bost liburukiak, horri esker gaur egun Bizkaiko Foru Artxiboan gordetzen dira. Bestalde, Juan Carlos Guerrak 1882. urtean, Madrilgo Biblioteca Nacionalean, galdutako

koadernoetako hiru aurkitu zituen, nahiz eta 1921. urtera arte ez zen jakin koaderno horiek Ibarguen-Cachopin Kronikaren parte zirela. Gaur egun Biblioteka berean jarraitzen dute.

Honekin Ibarguen-Cachopin kronikari emandako gainbegirada<sup>8</sup> beharrezkoa bukatutzat eman eta Kantabriarren Kantua nahiz Andramendiko Idazkiak testuen aurkezpen historikoari ekingo zaio.

### 3.1.1.1 Leloren Kantua

Ibarguen-Cachopin kronikaren nondik norakoak laburki aipatu ostean aztertuko den lehen testuari buruz aritzeko momentua iritsi da. Kantabriarren Kantua, aipatu bezala, Ibarguen-Cachopin Kronikan agertzen da, hain zuzen ere 71. koadernoan, II. liburuko 90. orrian; kantu honi bi izen eman zaizkio, lehena, Ibarguen eta Cachopinek emandakoa, Kantabriarren Kantua eta bigarrena, ondorengo ikertzaileek emandakoa, Leloren Kantua. Egiazki, azken hau ez da “Kantu” bat hitzaren zentzu hertsian, nolabaiteko estribillo, hasiera edo, nola ez, “lelo” bat baizik, baina, halere, garrantzizkoa kantu ezberdinetan duen agerpenari so egiten badiogu. Gure ikerketan biak aintzat hartuko badira ere Kantabriarren Kantua izango dugu aztergai nagusi, eta baita kantua bere osotasunean aipatzen denean emango zaion izena ere.

Leloren Kantua, esan bezala, ez da berez kantu bat, nolabaiteko estrofa bat baizik, kantuaren estribillo edo hasiera moduan eta hurrengo kantuarekin batera emana, inongo bereizketarik gabe. Hau horrela izanik askok galdetuko diote bere buruari, zergatik eman zaion “kantu” izena estrofa huts bati; honen erantzuna Cachopinek, 65. koadernoan, II. liburuko 50-52 orrietan ematen du. Hark dioenez, sarrera edo estribillo hau antzinako kantu baten arrastoa da, eta aipatutako orrialdeetan, azaltzen digu nola euskal kanta zaharrek hasieran errepikatzen zen sarrera zuten, bere aita Garcia Fernandez Cachopin kronikagileak testu eta kanta zaharretan ikertu zuena. Itxuraz esanahirik ez duen estribilloa honelakoa da aztergai dugun kantuan:

Lelo yl lelo  
lelo yl lelo  
leloa çarac  
yl leloa

Cachopinek kontatzen digun azalpen, argiki fantastikoak, honela dio, Caro Barojak kontatzen duenez:

Un supuesto jefe Cántabro, llamado Lelo, estaba casado con una mujer llamada Tota. Esta cometió adulterio con Sara o Zara, y Lelo luego fue asesinado por los amantes. Y añade que

<sup>8</sup> Sarrera hau osatzeko ikus Arriolabengoa (2006: 21-35) Interneten eskuragai.



cuando se supo el hecho, los nobles, jueces y ancianos “se juntaron en su batçarra y Junta general q dexamos dho y diremos adelante en muchas ptes. de esta jstoria, los cuales conformes y de un acuerdo hordenaron y mandaron de alli pa siempre q porq obiese castigo exemplar de lo presente y memoria benjdera dello q en el principio de todos sus cantares nombrasen en verso compuesto en pocas razones esta crudelissima muerte aleboza... (Caro Baroja 1985: 84).

Beraz, Caro Barojak originaletik ateratako hitz hauek “q en el principio de todos sus cantares nombrasen en verso compuesto en pocas razones esta crudelissima muerte aleboza...” esan nahi dutena hasierako estribillo ulertezin horrek istorio honen gordetzaile dela da, argiki fantastikoa dena, Arriolabengoak (2008: 180) aipatzen duen bezala, istorio honek mito klasikoekin lotura handia baitu, zuzenago *Agamemnonen* irudiarekin eta honen hilketaren mitoarekin. Istorio hori erabili izanaren argudioa Arriolabengoak aipatzen duen moduan Cachopinek mitologia klasikoari zion mirespena da ziurtasun handiarekin. Laburbilduz:

Kantabriarren Kantuaren egileak estribillo moduan lelo hau hartu zuenean, nahiz eta ahozko tradiziotik jaso, denborarekin esanahirik gabeko hitz-joko huts bihurtutako doinu haiei azalpenen bat aurkitu beharrean ikusi zuen bere burua. Horrela asmatuko zuen Leloren inguruko istorio mitikoa. Horretarako, eta ikutu poetiko eta adierazkorra eman nahian, tradizio greko-latinotik Agamenon-en mitoa jaso zuen eta bere erara itzuli (Arriolabengo 2006: 186).

Gaur egungo ikuspegitik nahiko bistakoa dirudi azalpen honen funtsa eza, baina historian zehar ikertzaile anitzek defendatu zuten teoria hau, Iturriza, Humboldt edo Moguel ezagunez gain beste askok ere. Kontrako saio nabarmenenak Urquijok (1910, 1922) eta Mitxelenak (1986) egindakoak dira, azkenik, funts zientifikoaz baliaturik egindakoak. Lan honetan Urquijoren aipatu bi lanak erabili dira, Mitxelenaren artikuluekin batera. Azkenik, Arriolabengoaren (2006) tesia erabili da.

Baina nabarmen faltsua den azalpen anekdotiko hau alde batera utziz, estrofa honen benetako jatorriari helduko diogu, laburki bada ere, ez baita kantu honen ezaugarri eksklusiboa. Aspalditik, kanta honi buruzko mitologia errefusatuz ondorio batera heldu da, kanta hau kantu baten hasieran, nahiz barnean, estribillotzat erabiltzen den errekurtsio bat da, tradiziotik datorrena, besteetan aurkitu baitira bere paraleloak, baina Cachopinek sortutako istorioarekin zerikusirik ez duena.

Urquijok bere “La Tercera Celestina y el Canto de Lelo”-n (1910: 576) zenbait paralelo dakarzkigu, lehena 1536. urtean datatu “Peruchoren canta”:

Lelo lirelo çarayleroba  
 Yaçoe guia ninçan  
 Aurten erua  
 Ay joat ganiraya  
 Astor usua  
 Lelo lirelo çarayleroba.  
 Ay joat ganiraya  
 Astobicarra

Esso amorari  
 Gajona chala  
 Y penas naçala  
 Fator que dala  
 Lelo lirelo çarayleroba.

Etxepareren (1545) bertsoetan bi aldiz agertzen da, hauek Caro Barojaren (1985: 86) lanetik jasoak:

Sautrela: “Etay lelori, bai lelo, leloa çaray leloa”  
 Potaren goldacia: “Eta lelori bay, lelo, pota franco, vereia vego”

Azkenik, Arriolabengoak (2006: 183) aipatzen duenez, Lazarragaren (1567) eskuizkribuan ere agertzen da beste paralelo bat:

Ytai lelo ybai lelo  
 Echean aray leloa  
 Damarica dan galantaena  
 Belagai butroecoa

Ziur naiz lan gehiago arakaturaz gero paralelo gehiago topatzea posible dela, baina atal hau laburtzarren hauekin asetuko gara, formula honen tradizionaltasuna frogatzeko aski direlakoan. Beraz, ikusi dugu kantu honek tradizioa duela, inongo istoriorik gabe atzean, eta antzeko paraleloak dituela hizkuntza eta leku ezberdinetan. Caro Barojak laburbiltzen duen bezala:

Así quedó afianzada la falta de significación del estribillo aquí estudiado, por razones que, en resumen, son estas:

1ª El canto de los cántabros es una falsificación, y, por tanto, se puede sospechar que en su primera estrofa hay algún elemento falsificado (como la c del agente de la palabra “çarac”, acaso).

2ª Hay estribillos que se relacionan con esta primera estrofa y que gramaticalmente no se pueden traducir correctamente.

3ª Hay estribillos peninsulares, sin sentido, que fonéticamente se parecen al del canto de los cántabros (Caro Baroja 1985: 91).

Kantu honi buruzko nondik norakoekin bukatzeko, Mitxelenaren hitzak ekarriko ditut, inork baino hobeto laburbiltzen baitu esandako guztia:

Del de Lelo poco se puede poner en debate. Su autenticidad está garantizada por varias versiones independientes y por la misma voz *lelo* en el léxico común. Su función también esta patente: era un “monstruo” que servía “para dar entendimiento de los versos y pies de cantar venideros” según la fuente del cantar de los cántabros (Mitxelena 1986: 293).

Azalpen honi bukaera emanez, ondorioztatu ahal da Leloren Kantua ez zela kronika honetarako sortua, hau da, ez dela berezko faltsifikazio bat, akaso moldatutako elementu tradizional bat da. Faltsifikazioa dena Cachopinen asmazioa da, elementu tradizional esanahi gabeko bati azalpen bat emateko saiakera hutsa da.

### 3.1.1.2. Kantabriarren Kantua

Aurretik aipatu bezala, Kantabriarren Kantua aurreko kantuen jarraian idatzita dago, inongo bereizketarik gabe, kantu honen osagarri bezala erabili baitzen aurreko

estrofa. Honakoa da kantu “osoaren” zati garrantzitsuena, bestea, esan bezala estrofa hutsa baita, eta aurrekoa “benetakotzat” hartu badaiteke ere, honakoa argiki faltsua da.

Kantu honek, logiko denez, Leloren Kantuarekin partekatzen ditu edizioak, nahiz eta zenbait lanetan ez den lantzen, Caro Barojaren 1985ko lana kasu, orokorrean aurrekoari itsatsita agertu ohi da. Gure kasuan horrela izan da balitu den edizioan, hots, Arriolabengoaren edizioan.

Testu honen gaia “Kantabrisimo” deritzon pentsamoldearen eskutik doa. Ezagun denez, Kantabrisimoa XVI, XVII eta XVIII. mendeen artean euskal intelektualen artean nagusitu zen ideia apologetikoa da. Hona hemen atal honetan zenbait datu emateko erabiliko dugun iturritik<sup>9</sup> hartutako definizioa:

El cantabrisimo, por su parte, afirma que los vascos son los descendientes de los antiguos cántabros de época romana. De ese modo, se identificaba a los vascos con el pueblo que nunca fue conquistado por los romanos y, por lo tanto, ha podido conservar su idioma sin variación ni mezcla. Por el contrario, el resto de la Península ha sufrido un sinfín de invasiones, que han hollado su territorio y puesto su lengua, lo que explica que el vasco no siga siendo la lengua de España (Gomez & Urgell 2010: 267).

Kantabrisimoa, Tubalismoarekin<sup>10</sup> batera ideia apologetiko nahiko orokorra zen aipatu mendeetan garaiko Espainian, euskaldunen artean Oihenart bakarrik aipa dezakegu bi ideien kontrako bezala, nahiz espainiarren artean kontrakoak ugariagoak ziren. Arriolabengoak (2006: 186) dioena jarraituz, kantuaren autoreak, ziurrenik Cachopin aitak, pergamino zahar batzuetan aurkitu zuela esaten zaigu, eta dituen 16 ahapaldiak baino luzeago zela esan ere. Ziurrenik, Kantabrisimoaren ideiarri oinarri historiko bat emateko osatu zuen kantu hau, *Odisea* edo *Iliada* baten antzera, herriak betiko gordeko zuen kantu bezala. Egiazki horrelako jokaerak ez dira arraroak garai horretan eta Europa osoan, Cidek (1994: 507) esaten digun moduan, zenbait herriren hizkuntza nazionalen nahiz iragan historikoaren berpizte kulturala faltsifikazioetan oinarritu baitzen; esate baterako bretoieraren berpizte kulturalaren adibidea ematen digu, Hersart de la Villemarquék kantu herrikoien faltsifikazioaren bidez abiatu zuena.

Kantuari berriro helduz, eta hau laburbilduz, honek euskaldunek erromatarren kontra izandako guduak kontatzen ditu, hots, erromatarrek, Oktabiano buru zutela euskaldunen aurka jardun zutela, eta euskaldunek kontra egin eta bota zituztela, eta are azken borroka Erroman bertan gertatu zela, euskaldunen garaipena eta bakearen ekarpenarekin. Ondorioz, faltsifikazio hau, Kantabrisimoaren ildoan bete betean dagoela

<sup>9</sup> Uler bedi beste autorerik aipatu ezean Gomez & Urgell (2010) laneko datuak direla.

<sup>10</sup> Euskara antzina penintsula osoko hizkuntza zela, Tubalek, Noe-ren ilobak ekarritakoa, aldeztu zuen ideia apologetikoa; ikus Gomez & Urgell 2010: 266-267.

ikusteko azalpenik behar ez duena, garaiko testuinguru historikoaren ikuspuntutik begiratzen badugu ez bide zaigu ikuspuntu garaikidetik iruditzen zaigun huts larria begitanduko, Arriolabengoak (2006: 186) dioen moduan “historiaren onerako lan egitea baizik”.

Hau, Ciden ereduari jarraiki zaila da sailkatzen, kasu gehienetan aurreko testu batetik kopiatuak diren jakitea ez baita posible; halere, “kantabriarren kantuan” ez dirudi aurreko garaietako testurik kopiatu izana, honen hizkerari “arkaiko” itxura nahita eman zaiola baitirudi, ez da garaiko elementu arkaiko bereizgarriak aurkitzen aurreko testuetan bezala. Beraz, D.1. tipologiakoa ez bada, hau da, benetako elementu minimo bat duen asmakizun hutsa, asko jota C. tipologiako, hots, aurreko testu bat edo gehiago, egiantza historiko gabeak ziurrenik oinarri hartuta egindako manipulazioa, h.d, faltsifikazio baten faltsifikazioa.

### 3.1.1.3 Andramendiko idazkiak

Andramendiko idazkiak izenez ezagutzen diren bi testuak Iburguen-Cachopin kronikaren 65. koadernoan jasotzen dira, Muxikako etxe zaharrenean inguruko testigantza jasotzerakoan. Testu hauek ez zuten aurreko testuak zuen fama eta arreta jaso, eta Iturrizak jaso bazituen ere, edizio ezagunena Mitxelenak TAVen jaso zuena da, halere kontuan hartu behar da transkripzioa fotokopietatik eta Rodriguez Herreroren transkripzio batetik abiatuta egin zutela (Mitxelena & Bidegain 1954: 9). Lan honetarako, ordea, Arriolabengoarena hautatu da, zuzenean originaletik jasotakoa eta akatsen berri ematen diguna delako.

Testuen aurkikuntzari buruz esaten zaigunez Cachopin aitak burutu zuen, eta beste eskritura askoren artean aurkitu, larruetan eta adobatutako hosto eta zuhaitz azaletan idatzirik, eta ondo kontserbatzen ziren testuak kopiatu zituela bakarrik<sup>11</sup>. Esaten zaigunaz aparte, kronikaren atal garrantzitsuenaren egilea, §3.1.ean aipatu bezala, Cachopin semea izan zen, eta Iburguenen lana atal horiek jaso eta kopiatzea besterik ez zen izan, baina, kasu honetan Cachopin semeak aitaren lanetik hartu omen zuen testu hau. Egiletza, beraz, Cachopin aitarena dela esan genezake, garaiko beste testu batetik hartu ez bazuen, baina hau frogatzea zail izango da; halere, garaikideek testu hain garrantzitsuak aipatu ez izanak lehen hipotesia lehenestera garamatza.

---

<sup>11</sup> Honi buruz sakontzeko ikus Arriolabengoak (2006: 233-240).

Testuek bi data dituzte, lehenak 564. urtea eta bigarrenak 748.a. eta bi itzulpenekin batera ematen dira. Agerikoa da, noski, apokrifoak direla, M. Bidegainek eta Mitxelenak erakutsi bezala. Testuei jarraitzen dien gaztelerazko azalpenean, autoreak testuetako euskara garai horretan Gernikan egiten zenaren antzekoa dela aipatzen du, baliteke Ibargueneren eskualdeko euskara goraiatzeko nahiz testuari sinesgarritasuna emateko.

Andramendiko Idazkiak prosan diren aldetik Ciden analisitik aldentzen dira, hark balada lantzen baitu, baina nolabaiteko egokitzapenaren bidez sailkatzen saiatu naiz. Testu hau XVI. mendean kokatu behar da gutxienez, dituen arkaismoek erakusten duten moduan, baina baliteke aurreko garaietako beste baten moldaketa izatea ere; kasu horretan B.2. kategorian sailkatuko genuke, testuen gehiegizko manipulazioaren ondoriozko faltsifikazioa, zehazki aurreko baten forma diskurtsiboa moldatuaz egina.

### **3.1.2. Britainiako kantua**

Britainiako kantua Alfonso Otazuk 1975. urtean argitaratu zuen. Hark zioenez Artxibo Historiko Nazionalako Osuna sekzioan aurkitu zuen, Diego Velez de Idiáquez zaldun gipuzkoarraren gutun batean, 1626an datatua, beste esku batek idatzitako kopia batekin batera agertu zen. Otazuk aurkitu eta publikatu ondoren Sarasolak “Contribución...”-en bildu zuen eta hori izan da erabili den bertsioa, edizio modernoago eta zehatzago baten faltan. Edizioa Gabriel Arestiren itzulpen batekin ematen da.

Kantak Donostiatik Britainiara bidalitako flota baten abiatzea kontatzen digu, Salinasgo kondeak gidatua eta, Otazuk dioenez, 1489ko espedizio baten ingurukoa izan liteke, ziurrenik 1489an Donostiatik abiatu eta 1491an itzultitakoa, porrot handi baten ondoren.

Velez de Idiáquezek, gutunean zehazten du idatziko bertsoen letra bere aitarena dela, baina baita ere kantaren bertsoak poema luzeago baten zati bat zirela, Juan Perez de Idiáquezek XVI. mendearen bukaeran idatziak. Idazketaren data ez da aipatzen, baina Otazuk 1491-1510 artean kokatzen du. Hau da, kronologikoki gertakizunetik hurbil.

Halaber, Otazuk aipatzen du poema hau, ziurrenik, nahiko ezaguna izango zela bere garaian, baina kostaldean soilik, Garibai bezalako kanta zaharren gordetzailer batek ez baitzuen honen lekukotasunik utzi. Hau argudiatzeko kanta Gipuzkoako barnealdera ez zela iritsiko, eta horregatik ez zuela Garibaik jaso esaten da. Arrazoibide honek

nahiko susmagarri dirudi, kontuan izanik Gipuzkoa bezalako eskualde txiki batean herrien arteko isolamendua izatea ez dirudiela oso egiantzeko.

Kantaren euskarri den gutunean jartzen badugu gure arreta, eta haren autoreari buruz arakatzen, ikusiko dugu laburbilduz<sup>12</sup> gutun hori, 1626. urtean Salinasgo kondea zenari bidali ziola, bere arbaso zenari buruzko poema bat bidaliz eta bere burua bere zerbitzurako eskainiz, Salinasgo kondea Felipe IV.aren Espainian goi mailako gortesaua baitzen. Honek, datu historiko asko alde batera utzirik ere, duda bat sortzen du, Otazuk nahiz Sarasolak horrelakorik aipatu ez arren: poema hau ez ote zen egina izango Salinasgo kondea lausengatzeko, hari gerturatzeko estrategia bat, alegia? Kontuan hartuaz haren boterea ez zela txikia garaiko Espainian, horrek zekartzan onurekin. Baina hau, ziurrenik, ez dugu inoiz segurtasunez jakingo. Horretarako aztertuko da testu hau, faltsifikazioa izateko itxura eta zergatia baitu.

Testu honek dituen berrikuntzek esan bezala 1626ko data duen gutunarekin batera datatzea ahalbidetzen dute, baina dituen beste zenbait arkaismok aurreko testu baten kopia izatea ere, beraz baliteke hau C. tipologiakoa izatea edo, agian, B. tipologiakoa, zehazki B.2.koa, forma diskurtsiboan moldatutako testua, hain zuzen ere.

### 3.1.3. Annibalen Kantua

Annibalen kantua aztertuko direnen artean ezezagunena da argi eta garbi, halaber, faltsifikazioen artean traketsena dela ere esan dezakegu, bere idazkera gainetik irakurri bezain pronto nabarituriko baitu irakurlea ez dela erromatarren garaiko testu bat irakurtzen, erdi arokoa izateko ere modernoegia baita.

Testu honen edizioei buruz gutxi da esateko: Agosti Chahok *L'Ariel* egunkarian argitaratu zuen 1845ean, eta horrez gain Urkizuk (2003: 343) diosku bere faltsifikazioengatik ezagutu Garay de Monglave kazetari baionarrak<sup>13</sup> 1852an Villemain Heziketa publikoko ministroari bidaliriko gutun batean 1821eko urriaren 1ean kantu bera aurkeztu ziola, ziurrenik Chahoren bertsioa bere egin nahian.

Testu hau da traketsena eta Ciden sailkapenari jarraiki D.2. kategorian sailkatuko genuke, hau da, asmakizun hutsa diren faltsifikazioen artean guztiz asmakizuna dena, inolako elementu errealik gabekoa. Lan honetarako 1992an Urkizuk probestu edizioa baliatu da, ez baita besterik aurkitu.

<sup>12</sup> Gai honetan sakondu nahi izanez gero ikus Otazu (1975).

<sup>13</sup> Monglavek ministroari bidalitako apokrifoen artean Leloren, Altabizkarko eta Annibalen kantua aipatzen ditu Urkizuk, eta bi kanturen itzulpenak, Domingoren Eresia eta Urthubiako alhaba, apokrifotzat jotzen duena. 2008. urtean Cidek (2008 [2010]) eta Lakarrak (2008 [2010]) haren benekotasuna frogatu dute.

### 3.2. Azterketa Linguistikoa<sup>14</sup>

Erabiliko diren testuei haien ibilbide historikoan zehar eman den errebasoari bukaera eman ondoren atal honetan azterketa linguistikoari ekingo zaio. Ez da inolaz ere testuen iruzkin linguistiko osoa izango, haien arazo garrantzitsuenen azterketa baizik, hauen faltsutasuna erakustea baita nire helburua, eta, honetarako esaldi labur bat aski izan daiteke (horretarako ikusi 3.2.5 puntua, Altabizkarko Kantua adibide dela)

Gehiegi ez luzatzearren, adibideak zenbakien bidez emango dira, kantuaren estrofeekin eta Arriolabengoak originalaren gaztelerako azalpenean oinarritutako itzulpenarekin, azalpena luzeegi baita. Testu osoak bukaerako eranskinean emango dira.

#### 3.2.1. Kantabriarren Kantua<sup>15</sup>

Azterketa linguistikotik kanpo utziko da Leloren Kantua, *çarac* (2) formaren manipulazioaz aparte, *çara* batetik *çarac* batera, hau da, hitz bat aditz baten egile bihurtuz, ez baitu interesik guretzat, tradiziozko estribillo dela erakutsi baita aurreko atalean.

Gure testuan iruzkinduko dugun lehen ezaugarria artikulua erabilera izango da, “erromatarren garaiko” testu bat aztertzerakoan erabat erabakigarria dena.

Artikulua sorrera erdi aroko hartzen da, Traskek gogoratu zigun moduan

-a euskal artikulua iturri argia du erabat euskararen barruan, 3. graduako (*h*)*a*(*r*) emborraren espezializazio gisa; artikulua ez da dokumentatzen euskararen antzinako hizkuntza den akitanieran, eta oraindik gaur egun ekialdeko euskalkietan izenak ez dira mugatzen besteetan egiten den moduan. Eta horregatik, artikulua sorkuntza, ziurtasun osoz, erromatarren ondoko garaian gertatu zen. (Trask 1998)<sup>16</sup>

Beraz, honek argi uzten digu Kantabriarren Kantua ezin dela inolaz ere Augustoren garaikoa izan, honakoan artikulua edonon agertzen baitzaigu, bistako denez. Hona hemen adibide batzuk:

aronac (edo armac, Urquijoren( 1922) ustez)  
Vizcayac  
cansoa  
[...]

Huek kantaren lehen estrofakoak dira, edo bigarrenengoak, Leloren Kantua Kantabriarren Kantutik ez badugu bereizten, eta argi uzten digute, hasieratik bertatik, testu hau “Otabiano”ren garaikoa ezin dela izan.

Egiazki, testuaren delako antzintasuna argudio bakar honekin arbuatua egongo litzateke, halere testuan zehar dauden zenbait forma “xelebre” iruzkinduko dira, eta hitz

<sup>14</sup> Testuak lanean txertatzea aukera hoberena bada ere, eranskin moduan ezarriko dira, luzeera dela eta.

<sup>15</sup> Erdal itzulpena Arriolabengoak (2006: 191-2) originaleko erdal azalpenean oinarrituz ematen duena da.

<sup>16</sup> Geroztik ik. Manterola 2006 eta egile honen beste hainbat lan.

bakoitzaren adibidea hobeto erakusteko atalaren hasieran Arriolabengoak emandako itzulpena eta originaleko erdal azalpenetan oinarritutakoak. Esaterako oraintxe aipatuak *aronac* (3), testuko estrofak dioenez: (3) *Romaco aronac aleguyn eta* (4) *Vizcayac daroa cansoa* / Los ejércitos de Roma se esfuerzan y Vizcaya se lleva el campo.

Hitz honek hainbat interpretazio izan ditu: Urquijok, *armac* irakurri zuen, *aronac* erratatzat joaz. Arriolabengoak (2006: 197), ordea, *aronac* irakurtzen du berriro, eta “armada ibiltari” bezala itzultzen, eta kronikaren 72. koadernoan agertzen den beste adibide bat emanez: “... abiendo formado ununtuoso exército aronas de Aragón ... mobió guerra al Rey de Navarra”.

Gure lanerako, testu originala aztertu ezinik, nekez honi erantzun zuzena eman ahal; beraz, ikusirik Arriolabengoak kronikako beste lekukotasun bat ematen duela eta Cachopinen itzulpenak ez duela forma argitzen, ontzat hartuko da, baina aurrekoa, halere, ez da testuaren antzintasunaren frogar, gehienez ere XVI. mendeko lexikoaren lekukotasun jakingarri batena baizik.

Hurrengo hitz interesgarria *cansoa* (4) litzateke, estrofak dioenez. Honi buruz, akats ortografikoa duela esan izan da, eta *çansoa* litzatekeela, eta hori argudiatzeko Arriolabengoak (2006: 197) aipatzen digu lekukotasun bera hiru aldiz errepikatzen dela kronikan, *sansoac* bezala (I: 159, II: 52), eta *çançuak* formaz ere (II: 53). Halaber, Cachopinek hitz honi emandako definizioa aipatzen digu:

“vozes gritos, gritos muy grandes para se llamar, abizar”

Honi buruz euskaldunen garaipen oihuen irudi poetikoa izan daitekela dio. Baina kasu honetan, originala faltan badugu ere, beste hipotesi bat egin nahi nuke, adibidearekin batera eman den Cachopinen itzulpena jarraituz: *cansoa* (4) formaren eta *campo* itzulpeneko hitzaren arteko antzekotasunari so eginez interpreta daiteke *canpoa* bezalako hitz bat, gaztelerazko “llevarse el campo” zentzuarekin, “borroka irabazi” edo antzeko itzulpenarekin; hau da, (4) *Vizcayac daroa canpoa* / *Vizcaya se lleva el campo* itzuliko genuke. Halere testu originala esku artean edukitzeak eta hau kontu handiz aztertzeak bakarrik eman diezaioke erantzuna galdera honi.

Orain, ziurrenik kantaren forma famatuenera lotuko gatzazkio, alegia, “Lecobide” delakoa sortu zuen *leco bydi* (6)-ri. Estrofak horrela dio: (5) *Otabiano munduko jaun* (6) *leco bydy Vizcaicoa*. Humboldték izen propio bihurtu bazuen ere, oso ezberdina da Mitxelenaren (1986) ondorioa. “Contra Lecobide”-n Mitxelenak kantuaren itzulpen edo azalpen originala aipatzen du, *leco bydi* “eceto de Vizcaya” dakarrena. Hau azaltzeko



*bydi* bizkaieraren inperatiboa dela gogoratzen du, eta *leco* forma argitzen ekialdeko tradizioko *lek(h)at / lek(h)ot* bitartez, “izan ezik” (= “eceto”) baitugu hor hain zuzen.

Horrelako forma bat mendebaldean topatzea espero ez den aurkikuntza dela aipatzen badu ere, ez du ezinezkotzat ematen, gaur egun eremu murrizteko ezaugarriak direnak antzina, XVI. mendean, “euskara arkaikoaren” garaian, alegia, zabalduagoak zeudela esanez argudiatuaz. Lan honetan argumentu hori onartu dugu, kontrakoari zentzugabea baiteritzot.

Kanta honetan zalantzak sortu dituzte estrofetako azken hitzek, jada aipatu *cançoa* kasu. Hauetako batzuk nahiko ilunak direnez baliteke autoreak testuari “zahar” itxura eman nahian hitz horiek aldatu edo bilatzea, errima egiteko erabiltzen zirela ikusirik. Hauei azalpena emateko Arriolabengoaren (2006) lana erabiliko dugu.

*Molsoa* (8) dugu hitz hauetako bat, 7. eta 8. lerroetan agertzen dena: (7) *Ychasotati eta leorres / (8) ymyni deusco molsoa*. Dogsonek eta Larramendik “multzo” hitzarekin lotzen dutena, Arriolabengoak, ordea, kontestuari so eginez “blokeo” adiera aipatzen du.

Ondoren *leusoac* (10) hitza topatzen dugu, hurrengo estrofan: (9) *leor çelayac bereac dira / (10) mendi tantayac leusoac*. Oraingoan esanahi gardenekoa, hau da “lauso” hitzaren aldaera.

*Gogoa* (12) gardenena da: (11) *lecu yroniam gagoçanean / (12) noc bera sendo dau gogoa*.

Hurrengo estrofan (14) *guexoa* topatzen dugu: (13) *bildurric guychi arma bardinas / (14) oramayasu guexoa*; Arriolabengoari (2006: 200) kasu eginez gero, hitzari “min” edo “zauri” adiera emanaz onargarri lirudike.

*surboa* (16) hitzari dagokionez, ez da oso garbia; estrofan horrela agertzen da: (15) *Sojac gogorrac badyri tuys / (16) narru biloxa surboa*. Arriolabengoaren esanetan Mitxelenak inperatibozko forma ikusi zuen, hitza zatizuz gero, *boa* elementuan. Gure kasuan ez dugu horrelakorik ikusten, eta itzulpena jarraitzen badugu denak “sendoa” bezalako esanahi batera garamatza, baina testu originala eduki ezean ez da posible grafiazko arazo den erabakitzea.

Hurrengo estrofan, (17) *Bost urteco egun-gabean / (18) gueldi bagaric pochoa*; *pochoa* forma argi eta garbi mailegatua da, “foso”-tik dator, eta “setio”, “cerco” esanahiekin bat egiten duela dirudi, jatorrizko hitzarekin baino gehiago.

*galdoa* (20) gardenena da, hots, “galdua”-ren aldaera, errima mantentzeko aldatua agian: (19) *Gureco bata il badaguyan / bost amarren galdoa* (20).

*lalboa* (22) formarekin, aldiz, ez da beste hainbeste gertatzen; estrofa honelakoa da: (21) *Aec anys ta guc guichitaya* / (22) *asquynyn dugu lalboa*. Arriolabengoak Cachopinen erdarazko azalpena ematen du: “Y en el 11 dize que, aunque los enemigos heran muy muchísimos y los vizcaínos muy poquitos, sienpre les daban las manos llenas y grandes golpes de guerra y continos malos tratos, llebando sienpre la mejor parte de la bictoria, dándoles cruelísimas muertes” (2006: 190). Berak ateratzen duen konklusioa “tregua” izan behar dela bere gutxi gora beherako itzulpena da; guk, ordea, itzulpenari jarraiki “garaipen” bezala itzuliko genuke baina erabateko ziurtasunik gabe.

*çamoa* (24) iluna da, eta errata dela aipatu bada ere, hemen ez gara horri erantzutera ausartu, baina *cansoa* (4) antzekoa da, eta bi itzulpenetan garaipenari buruz hitz egiten denez ez zaigu erokeria bat *çanSoa* bezala interpretatzea eta berriro ere *canpoarekin* erkatzea: (23) *Gueure lurrean ta aen errian* / (24) *biroch aynbaten çamoa* //(23) *en nuestra tierra y en la suya* / (24) *sendas justas y victorias*.

Azken bi estrofetan *grandoya*: *Uchim tamayo grandoya* (28) eta *narr doa: betico nayas narr doa* (32) dauzkagu, lehena “garandu”-tik omen dator, eta “nagusi” bezala itzultzen da, bigarrenak, ordea, esanahi iluna dauka, Arriolabengoak “nardo” loreari erreferentzia egiten diola aipatzen badu ere, ez gara gai izan hau azaltzeko.

Azterketa hau bukatuz, beste bi forma arraro aipatuko ditugu, *oramayasu* (14) eta *badiri tuys* (15) formak: lehena arras iluna iruditzen zaigu, eta aditz baten, ziurrenik “eman” aditzaren nolabaiteko forma izan daiteke. Bigarrena, ordea, nahiz eta azaltzeko zaila izan, itzulpena jarraituaz “badituzte ere” bezalako itzulpen bat onargarri da. *ba-*aurrizkia egotean baldintza baten presentzia logiko bihurtzen baitu; baliteke eskuizkribuaren azterketa sakon batek hau konpontzea. Nolabaiteko itzulpen logikoa honakoa dela deritzot:

Soiak gogorrak  
badiri tuys  
narru biloxa  
surboa.

Ezkutuak gogorrak  
badituzte bere  
narru bilotsa  
sendoa

Forma ilun hauek ikusi eta gero esan dezakedan guztia zera da: baliteke “iluntasun” hau autoreak berak nahita emandakoa izatea, Bidegainek eta Mitxelenak adierazi bezala: “su texto sigue siendo en buena parte incomprendible, debido sin duda a que su autor no encontró otro medio de darle aspecto de antigüedad que el de redactarlo en una especie de jerga o jerigonza artificial” (Bidegain & Mitxelena 1954: 5). Testua

Oktabioren garaikoa ez bada ere XVI. mendekoa denez hau argiagoa izatea espero da. Beraz, testu honi buruz zerbait argi badago, antzinarokoa ez dela da, eta baliteke autoreak “arkaiko” itxura nahita ematen saiatu izana, nahiz eta hau ez zen ohikoa garai horretan behintzat (ik. Mitxelena 1963: 14).

### 3.2.2. Andramendiko Idazkiak

Andramendiko kantua aztergai ditugun testuen artean interesgarriena dela esango nuke. Daukagun prosazko adibide bakarra da, eta Mitxelenak aipatu bezala: “su carácter de falsificación no debe hacernos olvidar ni por un momento que [...] han sido redactados alrededor de 1600 por lo menos, lo que para un texto vasco es una antigüedad venerable” (Michelena & Bidegain 1954: 6).

Hau da, frogatu behar duguna 564 eta 748ko bi testu ez direla bada ere, zeina ebidente den, hori 1600 inguruko testua dela frogatuz egingo dugu, horretarako testuak dituen arkaismoei eta ezaugarri interesgarriei so eginez.

Horietan lehena *borss* (4, 25) edo *eguytecos* (15) bezalako formak dira. Lehen begiratuan ekialdeko ezaugarriak dirudite, eta *borss* horrela izan daitekela uste dut; *eguytecos*-en kasuan, aldiz, paraleloak aurkitu dira garaiko eta euskalki berdineko obretan, *RS* edo *Errodrigo Zaratekoa* baladan, kronika berean aurkitzen delarik 2. hau, gainera. *Borssentzat* ez dugu horrelako paralelorik aurkitzen mendebaldean, baina kontuan izanik Arriolabengoak dioena, eskuizkribuan *bost* hitza tatxatuta agertzen dela eta bere gainean *borss* idatzi zela, alegia, bi gauza pentsatu ditzakegu, edo Ibarguenek bere euskararen alde zuzendu zuela testua, ez dena egiantzekoa Muxika ingurukoa baitzen, edo nolabaiteko ukitu arkaiko edo arraro bat emateko erabili dela.

*Aramac* (16) edo *Romirochyc* (17) formen bukaeran ergatiboa ikusi dute ç zenbait ikertzailek: (16) *Aramac Ubillos gas* / (17) *Romyrochyc*. Arriolabengoak argudiatzen du izenak direla, eta kronikan aipatzen diren “galiar” jatorrizko zenbait leinuk bukaeran “c” dutela, *Abuminic* kasu. *Romirochen* (17) kasua berdina izan daiteke edota patronimiko bat.

*Aguyn* (20) forma arraroa iruditu ahal bazaigu ere, azalpen erraza duela ematen du: (20) *Jaunoc aguyn[su]*. Arriolabengoak (2006: 237) honi buruz aipatzen du forma kronikaren josturaren ertzean omen dena, moztuta, eta gaizki ulertzen dela, baina *aguindu* itzulpena ikusten du bertan. Guk ere itzulpen horri egoki deritzogu.

*egorrochi* (22) forma interesgarria da, idazkian horrela dator: *guyçon guexto eRi egorrochi banymendadua* (22). Bidegain & Mitxelenak aipatu zutenenez, *egorrochiren*

kognatua izan daitekeen *ygorrosi* aurkitzen da kronika berean, hain zuzen ere Juan de Gorostiagak landu zuen Martin Juanes de Labieroren epitafioan.<sup>17</sup> Gorostiagak *egorrochi* “erbesteratu”, “desterratu” bezala itzultzen du, eta (losa) *ygorrosi* “errespetu falta” edo “lotsa” bezala. Bi formen itzulpenak batabestea nahiko ondo osatzen dutela iruditu zaigu, “herri erbesteratu” edo “herri lotsatu” bata bestearen kausa eta ondorioa izan baitaiteke. Baina jarraian datorren formak ilunago dirudi: *banimendadu* (22), Mitxelenak “bahitu” erabiliz azaltzen digu, Leizarragaren obran lekukotutako *banimendutik* letorkeela erantsiaz, eta hau, halaber, aipatu *baitutik*, eta aurreko *egorochiren* itzulpen berdinarekin, (“desterratua”). Gauzak horrela esaldia apur bat “erredundante” geratzen zaigu; Arriolabengoak esaten digun moduan hemen bi izen sintagmen arteko paralelismoa ikus dezakegu, hau da, “gizon gaizto” alde batetik eta “desterratu”, “lurretik egotzitakoak” bestetik. Honek, idazkiaren kontestua jarraituz, ituna sinatzen zutenek hitza hausten zutenek jasotako zigorraren jakinaren gainean egiten zutela esan nahi lezake.

*Darda bacoachac: escutaririk asco darda bacoachac Euren baçarrean* (34). Forma hau kronikan hirutan agertzen dela dio Arriolabengoak, “de lanza y dardo en puño” itzuliaz.

*Atetirean*-ek interes handia du: *Atetirean Eneco Pagoetantayco bere arma gueçi barriacas* (37): *-rean* ablatibo zaharra ikusten dugu, *ateti* izenari atxikia; izen hau ere arkaismoa dela kontuan hartuaz, ezin interesgarriago suertatzen da. Bizkaiko nahiz Arabako euskalki arkaikoen ezaugarri eskusiboa da *-rean* ablatiboa, testuaren idazketaren garaiko lekukotasun interesgarria, hau da, ezaugarri honek ez gaitu testuak aipatzen dituen garaietara eramango, baina bai euskara arkaikoarenera<sup>18</sup>, alegia, 1400-1600 urteen artekoa. Bestalde, *barriacas* hitzeko *-kaz* soziatibo pluralak testu hau mendebaldeko sartaldean kokatuko luke.

Azkenik *leman* (44), *letorrela* (40) edo *baesan* (38), *baesoan* (46) bezalako forma markagarriak dira: *baesan Eçe bere armaçarrac Ausi taletorrela* (38) / *Ari ichita letorrela* (40) / *Ybargoyengoac leMan Artean berea* (44) / *ta baesoan bere naguçiari legues* (46). Lehenengo biek Mitxelena eta Bidegainen (1953: 23-24) jakinmina piztu zuten, *l-* aurrizkia ulertzeko baliagarritzat baitzituzten. *Letorrela* zehar estiloa emateko erabili forma da. *leman*, “lo que le dio” bezala itzultzen dute, eta hau aoristo

<sup>17</sup> “*nor ete çan çuri losa ygorrosi eguiçuna*” (Michelena & Bidegain 1954: 21)

<sup>18</sup> Garaiari eta haren datazioari buruz gehiago jakin nahi izan ezkerro, ik. Mounole & Lakarra (2018).

hirupertsonal bezala deskribatzen. *Baesan* (38), *baesoan* ere aoristoak dira, bipertsonala eta hirupertsonala hurrenez hurren, “esan zuen” eta “esan zion” bezalako itzulpenekin.

Ezaugarri hauek ikusi ondoren esan dezakegu ez dagoela 564. edo 748. urtera eramaten gaituen ezaugarriarik, ez dugula topatzen urte horietan espero genukeen “Euskara Batu Zaharra”ren (ik. Lakarra 2018: 212-216) tankerakorik, XVI. mendeko testu arkaiko bat baizik, dialektala, mendebaldekoa, antza, interes handikoa, bere garaiko hizkera nahiko fidelki islatzen duela dirudiena, hauek “zahartzeko” ahalegina noraino iritsi zen ez dakigun arren, eta halere nahiko ulerterraza, orokorrean, interes handikoa, baina faltsua.

### 3.2.3. Britainiako kantua

Testu hau, berriro ere, testu interesgarria dugu, baina berriz ere, ez ustezko garaiko formen ondorioz, bere garaiko formen agerpenagatik baizik. Analisi laburra izango da hau ere, baina gure helburuak frogatzeko nahikoa. Aurretik aipatu dugu testu hau 1493. urtean datatzen saiatu zirela, halere, ikusiko dugu hau ez dela posible.

Aipatu behar dudan lehen gauza delako “kantu” honetan zera da, ez duela kanta baten antzik. Hauxe bera pentsatu zuen Sarasolak, analisi honetan laguntzeko hautatu den bere 1983ko lanean dioen bezala:

Faltan en esta composición toda una serie de rasgos que caracterizan a los cantares cuya relativa antigüedad está bien establecida. Podríamos así decir que una primera clasificación de los cantares vascos antiguos agruparía a todos los demás frente a éste (Sarasola 1983: 79).

Lehenbizi suma dezakeguna errima falta da, honek sortzen duen harridurarekin: nola zabal eta gorde kantuz errimarik gabeko testu bat? Hori ez nahikoa eta paralelismoa eta aliterazioa bezalako errekurtsio tipikoak ere ez dira inon ageri, kasualitatezkoa ematen duen *non içango baita beti beçela buru* (21) lerroan izan ezik. Bestalde, Otazu (1975) jarraituz Sarasolak dioenez, baliteke poema hau kostaldean ezaguna izatea, baina barnealdera heldu ez izana, horrela kantu hau Garibairen idazkien artean ez egotea argudiatuz. Gure iritzia, ordea, oso bestelakoa da: ez zen gertatu kantu honen transmisiorik, kantatu ezin daitekeen kantua eta baliabide mnemoteknikorik gabeko kantu bat nekez transmiti baitaiteke: Bestalde, ez da beste inon aipatu edo kopiatu ere eta, beraz, ondoriozta dezakegu hau ez dela tradiziozkoa eta ezin dela horrela aurkeztu.

Esan izan da errimarik ez dagoela, baina bai nolabaiteko metrika. Laburbilduz, silaben batz bestekoa lerroko 11 eta 16 silaben artean kokatzen da, 13ko lerroak gehienik, bi hemistikiotan zatiturik. Hau da, euskal poesiak arrotz ez dituen ezaugarriak

lituzke. Bestalde, Arriolabengoak gogoratzen duen beste ezaugarri bat hitzen ordena da, ez baitute jarraitzen esperoko litzatekeen ordena logikoa; esaterako *debeela herreguten* (15) edo *deguiola eman* (16). Forma hauek ez dira espero den ordenan agertzen, h.d., *herreguten debeela* edo *eman deguiola* ordenan, baina aldaketa hau ez da guztiz ulertzen, ez baita errimaren ondoriozko aldaketarik, errimarik ez izanik, eta ez da ikusten inongo fokalizazio efekturik. Beraz misterio bezala utziko dugu hau, zaila baita azaltzen errimarik gabeko metrika duen kantu zahar bat.

Orokorrean kantuaren dialektoari dagokionez hau gipuzkeratzat hartzen da, lekukotasun “zahar” urriak dituen dialektoa izanik poema hau benetan esanguratsua izan daiteke, gipuzkera ez dela Larramendi arte behar bezala lekukotzen. Testua dialekto horretakoa dela argudiatzeko aipa ditzakegu, –nahiz mendebaleko ezaugarri zenbait Arabakoak ere izan daitezkeen–, adierazgarritzat: *debe*, *debeela* (5 eta 15) bezalako laguntzaileak edota *deguiola* (16) forma, *egin* laguntzailearen gainean eraikia. Testua gip. izanik ekialdeko beste zenbait ezaugarri ere espero dira, esaterako: *Vizcaitican* (5) -*tikan* postposizioa (vs. mend. -*rik*, -*ti*) edo *yrian* (8) vs. mend. *uri*).

Testu honetan zenbait arkaismo interesgarri bada, dela ikuspuntu linguistikotik euskara arkaikoan sailkatzeko nolabaiteko trantsizioan, hau da, testua gordetzen zuen gutunaren garaikoa (1626) eta ez 1493 ingurukoa. Bat aipatzeko sozietibo koordinazio zaharraren bi adibide dira: bata Xkin  $Y = X$  eta Y kordinazio zahar ezaguna, *Ganboarraquin : Oñaztarroc conforme* (4) “G. eta O. conforme”, eta bestea X Ykin = X eta Y koordinazioa da, aurrekoa baino urriago, *Ontzi andiac chipiaquin* (9) “o. handiak eta txikiak”. Arkaismo hauek interesgarriak dira oso, eta poemaren antzinatasunaren erakusgarri, baina testuari ematen zaion garaia baino beranduagokoa izan daiteke, alegia, aipatu den datatik gertuagokoa (1626), hau esate baterako Lazarragaren antzeko lekukotasunak (1567-1602): Lazarraga (A10:3)<sup>19</sup> *Mundu guztia ysasoagaz* “mundu guztia eta itsasoa” X Ykin kordinazioa.<sup>20</sup>

Arkaismo interesgarrien artean artikulua zaharren erabilera aipa dezakegu, esaterako *conde andiorrec* (7) edo *conde galantori* (20). Baita *guztioec* (3) bezalako trantsizio forma, antzeko bat RSein (318 *guztioençat*) partekatzen duena. ToGEN eraikuntza bat ere aurkitzen dugu, egun ekialdean besterik gorde ez dena genitiboak absolutiboaren (edo instrumentalaren) funtzioa hartuaz: *nobleza guztiaren aniz*

<sup>19</sup> Adibidea hemendik hartua: Mounole & Lakarra (2018: 448).

<sup>20</sup> Lazarragaren kasuan, ohikoena ez den arren, X Ykin koordinazioaren adibide gehiago topatzen dira.

*estimatus* (22). Jakingarri da, halaber, *becela* (21 eta 24) aldaeraren lehen agerpenak lekukotzea.

Azkenik, analisi hau bukatzeko esan nahi nuke duda gabe testu zahar baten aurrean garela, baliotsua eta linguistikoki oso interesgarria delarik berau, gainera, baina argi eta garbi XVII. mendekoa. Ikusi dugu hainbat arkaismo gordetzen dituela, oso jakingarriak eta testuaren antzintasunaren (eta benekotasunaren) froga, hau da, XVII. mendeko euskararen froga erreal bat dela. Faltsua dena gutunean bertan ematen den azalpena da, hots, testu hau ez da XV. mende bukaerakoa, XVII. mende hasierakoa baizik, eta hau argudiatzeko frogak aipatu ezaugarrietan dira. Aurkitutako arkaismoak esanguratsu izanik ere, XVII. mendeko testu batean ez dira ezinezko (gogora X Ykin, Xekin Y kordinazioez esana, adb.) baina 1493 inguruko batean espero genituzkeenak falta dira, aoristoak kasu. Beraz testu hau XVII. mendeko hasierakotzat hartu behar da, beharbada gutuna idatzi zen urte berekoa edo lehentxeagokoa (1626), ez behintzat 1493 ingurukoa.

### 3.2.4. Annibalen kantua

Azterketa honekin bukaera emango diogu atal honi, eta beraz, azterketari. Aurreratu dugu atal hau laburra izango dela, irakurleak ikusiko baitu faltsifikazio hau hain dela traketsa non ez den benetan beharrezko azalpen luzerik hau frogatzeko.

Hasteko, eta Patri Urkizuk dioenez (2003: 343), hasiera eta bukaerako bertsoak kanta zuberotar batenak dira, “Txori kantazale ederra” izenekoarenak, erromatarren garaiko testu bat laguntzeko ezin aproposagoak. Baina txantxaz harago, faltsifikazio bezala testu honek ez du ez hanka ez buru, hizkera guztiz modernoa topatzen baitugu, ez antzineuskara ilun edo ulergaitza. Argi eta garbi uzteko modurik azkarrena estrofa bakar bat hona ekartzea bide da, *Annibalen Kantaren* lehen estrofa propioa (cf. Urkizu 1992):

Gure mendien oinetan  
Afrikan sorthu gizona  
Zohan galdez soldadutan,  
Etzen gure ezaguna.  
Romano ez zuten bilhatzen,  
Gure aiten gidal ona,  
Zutelarik ezagutzen.

Agerikoa da sintaxi hau modernoa dela, are gehiago, ulerkorregia, ikusirik Errenazimenduko testuek ere ulergarritasun arazoak dakartzatela. Ez dakit zer izan daitekeen beharrezko aipatzea, agian artikulua modernoa agertzea? Testu zahar batean hain ugari esperoko ez genuke, ezta seguruenik erdi arokoa balitz ere. Edo agian lexiko modernoa? Edo *-elarik* bezalako konplementatzaile bat? Aitzineuskarari buruzko gure

ezagutza gehienbat hipotesietan oinarritzen bada ere, Annibalen garaiko “euskaran” ez ditugu espero *-elarik-*dun menpeko perpausak.

Beraz, testu honekin ez gara gehiago luzatuko, soilik aipatuko dugu Chahoren fantasia bezala interesgarri izan daitekeela horrelako testu bat irakurtzea, baina linguistikaren aldetik denbora galera besterik ez dela, XIX. mendeko euskara oso partikular baten barnean sailkatzen ez bada, bederen.

### 3.2.5. \*Eranskina: Altabizkarko Kantua

Azkenik, gure laneko lagina ez bada ere, Altabizkarko Kantu famatua ezin genuen alde batera utzi, eta aipamen laburra bada ere, testu bat ezaugarri minimo batzuek baliaturik faltsua dela frogatu daitekeela erakusten digu. Suposatzen da testua XIII. mendekoa zela, baina hau soilik lehen esaldiaren sintaxia edota laugarren lerroko aditz morfologiari so eginez arbuia daiteke<sup>21</sup>:

Oyhu bat aditua izan da  
Escualdunen mendien artetik,  
Eta etheco jaunac, bere etchearen aintzinean chutik,  
Ideki tu beharriac, eta erran du: “Nor da hor? Cer nahi dautet?”  
Eta chacurra, bere nausiaren oinetan lo zauena,  
Alchatu da, eta karrasiz Altabiscarren inguruac bethe ditu.

Hau Altabizkarko Kantuaren lehen esaldia dugu, guztiz ulerterraza eta itxura aski modernokoa, eta xelebreeki, zehar estiloan emana, Cidek aipatzen digunaren kontra:

La proporción que ocupa el diálogo es de más del 80 %, en consonancia con lo que se encuentra en baladas euskéricas de autenticidad indudable, en romances castellanos y en la balada europea en general; y en notorio contraste con, por ejemplo, las mixtificaciones de Hanka, o los productos de Garay de Monglave, donde el diálogo es mínimo (así en «Domingo»), o el estilo directo aparece sólo en forma de parlamentos no dialógicos puestos en boca de un personaje, el «etxeke jauna», o de la voz narradora (Cid 2008 [2010]).

Bestalde, aditz morfologiari so egiten badiogu aditzean kontrakzio bat ikusiko dugu: *Ideki tu beharriac, eta erran du: “Nor da hor? Cer nahi dautet?.* Horrelako kontrakzioek ez dute kiderik iparraldeko euskararen gutxienez XVIII. mendera arte.

Azterketa linguistikoaren atalari bukaera emanez, ondorioen atalari ekingo diogu eta honekin lanaren bukaerari.

## 4. Ondorioak

Urteetan zehar emandako argudioek nahiko garbi utzi dute lan honetan aztertutako testuak argiro faltsuak direla. Kantabriarren Kantu ospetsuaren egiantzekotasunaren defendatzaileak atzean geratu ziren; Andramendiko Idazkien

<sup>21</sup> Testuaren transkripzioa hemendik hartua da: Francisque Michel (1857: 236).



benekotasunarenak, halaber. Britainiako kantuak duda gehiago sor ditzake, baina nahiko ahaztua gelditu izanak duda horiek isilarazi ditu; Annibalen Kantua hain da fantasiatsua non ezinezko iruditzen zaidan horren aldekorik aurkitzea, mundu akademikoan behintzat.

Testu hauek sortzeko arrazoi historikoak bilatu ditugu, eta sorkuntza horiek azaltzeko arrazoiak aurkitu ditugula uste dugu. Askotan gertatzen denez, zoritxarrez, erantzun horiek aurkitzea oso zail izango da, eta baliteke are ezinezko ere; halere, gure logikak dioskunez aintzat hartzeko ideiak dira.

Leloren Kantua tradiziozko formula bat dela ondorioztatzen dugu, gure aitzindariak (Urkijo, Caro Baroja, Mitxelena...) jarraituz (3.1.1.1). Kantabriarren Kantua Kantabrismoaren apologia egiteko tresna bat izan daiteke (3.1.1.2). Andramendiko Idazkiak, argi eta garbi apokrifoak dira (3.1.1.3). Britainiako Kantua Diego Velez de Guevarak Salinasko kondearen faborea irabazteko bidalitako testua izan daiteke (3.1.2) eta Annibalen Kantua Agosti Chahoren fantasia erromantiko bat besterik ez da, faltsua dudarik gabe.

Baina gure ondorioak ez dira soilik faltsutasunari buruzkoak, faltsifikazioak bai, baina lekukotasun garrantzitsuak ere baitira eta arreta handia merezi dutenak, ezin baitugu ahaztu Mitxelenak *Lenguas y Protolenguasen* esandakoa:

La historia de las lenguas goza, en comparación con otras historias especiales, del privilegio de disponer de un material que, en la medida en que está bien fechado, queda más allá de toda sospecha de falsedad. En efecto, si hay falsedad consciente o inconsciente, esta suele reducirse al contenido y no a la forma lingüística en que va expresado (1963: 14.)

Hau gure GrALean oso kontuan hartu dugu, nahiz lehen helburua faltsifikazio izaera azpimarratzea izan, ez dugu ahaztu, demagun, XVI. mendeko iruzur bat ere XVI. mendeko lekukotasuna dela, eta beraz, esan bezain zaharra ez bada ere, bere garaiko hizkeraren erakusgarri handia izan daitekeela, edo are gehiago, bere garaiko hizkera baino zaharragokoren batena, Andramendiko Idazkiek (3.2.2) edota Britainiako Kantuak (3.2.3) dituzten arkaismoek erakutsi bezala eta, beraz, gure hizkuntzari buruzko jakintza apurra hedatzeko ezinbestekoak.

Beste kasu batzuetan, ordea, kontu handiz ibili beharra dugu eta Mitxelenak dioskunez: “Solo en el caso de falsificaciones en que se ha tratado de imitar o de fantasear un estado arcaico de lengua hay que manejar el material con precauciones” (1964: 14). Kasu hau izan daiteke Kantabriarren Kantuarena (3.2.1), nahiz honetan duda handiak sortu dituzten, eta sortuko, forma batzuen azalpena sumatu dugun, testuaren erdal itzulpena lagun genuela.

Beste kasu batzuetan (Annibalen Kantua 3.2.4) hain da bistako faltsutasuna non XIX. mendeko hizkeraren dokumentu bat besterik ez dugun topatzen. Halaz guztiz, lekukotasun hauek ez dira ezinbestean arbuigarri, beti izan baitezakete zerbait guk ikasteko, izan hori antzinarokoa, izan XIX. mendekoa.

Lan honi bukaera emateko momentua iritsi da; ziurrenik, motz geratuko da gure lana, baina gure hizkuntzaren zoko ezkutueta iristeko beharrezko dira azterketak eta ikerketak. Gure arloko ohiturek paper zaharren artean bilatzea eskatzen du eta horregatik deritzot garrantzi handiko honelako ikerketa lanak egiteari, nahiz hau bezalako xumeak izan, handiak egiteko xumeekin hasi behar baita.

Honen ahuleziei begiratuz gero, asko da faltan duena hau bezalako gai bat jorrazteko: testuek hitzez hitzeko azterketa linguistikoa merezi dute eta horrek denbora eta baliabideak eskatzen ditu. Beti izaten da zail zenbait lekukotasun aztertzea, beti baitira azalgaitzak diren formak edota falta diren zatiak. Baina bada aurrera egiterik, lan eginez, irizpideak garatuaz eta finkatuaz, lehen agortutzat jotako testuak berriro aztertuz, testu berriak bilatuz... Izan ere,

Si nos percatamos bien del valor intrínseco de cualquier muestra del vasco antiguo, no cabe duda de que descubrimientos análogos seguirán sucediéndose. (Mitxelena 1964: 7-8)

## 5. Bibliografia

- Arriolabengoa, J., 2006, *Ibarguen-Cachopin Kronika: edizioa eta azterketa*, argitaratu gabeko doktorego tesia, Gasteiz: UPV/EHU.
- Arriolabengoa, J., 2008, “Los textos vascos en la crónica Ibarguen-Cachopín”. In *Monumenta Lingvae Vasconum*, Vitoria-Gasteiz: UPV / EHU.
- Caro Baroja, J., 1985, *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, Donostia: Txertoa, 77-102.
- Caro Baroja, J., 1992, *Las falsificaciones de la Historia (en relación con la de España)*, Barzelona: Seix Barral.
- Caro Baroja, J., 1985, *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, Donostia : Txertoa, 77-102.
- Cid, J. A., 2008 [2010], “La balada *Urthubiako Alhaba*: Problemas y conjeturas”, *ASJU XLII*-1, 1-60.
- Cid, J. A., 1994, “Tradición apócrifa y tradición hipercrítica en la balada tradicional vasca”, *ASJU* 28, 2: 505-524.
- Francisque Michel, X., 1857, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses meurs, sa littérature et sa musique*, Paris. Faksimila Donostia: Elkar 1980.
- Gomez, R. & Urgell, B., 2010, “Descripción y defensa de la lengua vasca durante los siglos XVI y XVII”, in A. M. Gonzalez Carrillo (arg.), *Post tenebras spero lucem: Los estudios gramaticales en la España medieval y renacentista*, Varsovia eta Granada: Instituto de Estudios Ibéricos e Iberoamericanos, Varsoviako eta Granadako Unib., 257-320.
- Gorrochategui, J., 2008, “Las armas de la Filología: la cuestión del Vasco Antiguo y los hallazgos de Iruña-Veleia”. In J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (Eds./Arg.) *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (2.º 2007. Vitoria-Gasteiz), Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Gorrochategui, J., 2011, “*Hic et nunc*. Falsificaciones contemporáneas. El caso Iruña-Veleia”. In J. Carbonell Manils, H. Gimeno Pascual y J. L. Moralejo Alvarez (eds.), *El monumento*

- epigráfico en contextos secundarios. Procesos de reutilización, interpretación y falsificación.* Congressos de la Universitat Autònoma de Barcelona; 7, 2011ko urtarrilaren 12a, Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona; Servei de Publicacions: Bellaterra.
- Lakarra, J., 2008, “*Vida con / y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de "Urthubiako Alhaba"*”, *ASJU*: 42, 1: 83-100.
- Manterola, J., 2006, “*-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar*”, *ASJU* 40, 1-2.
- Mitxelena, L., 1963, *Lenguas y Protolenguas*, Salamanca: Universidad.
- Mitxelena, L., 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Madril: Minotauro, 158-161.
- Mitxelena, L., 1980, “(Iruzkina) A. Tovar *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*”, *Muga*: 10, 122-128.
- Mitxelena, L., 1986, “*Contra Lekobide*”, *ASJU* 20:1, 291-313.
- Mitxelena, L. & M. Bidegain, 1954, «Las escrituras apócrifas de Andramendi”, *ASJU* 1, 5-24
- Mounole, C. & Lakarra, J., 2018, “Euskara Arkaikoa”. In J Gorrotxategi, I. Igartua, J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz, 345-468.
- Otazu, A., 1975, “El Cantar de Breña: un poema inédito de fines del siglo XV en la lengua vasca”, *FLV*, 19: 43-70.
- Sarasola, I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU* 17, 77-82.
- Tovar, A., 1981, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca. Historia de los estudios sobre ella*, Madrid: Alianza Editorial.
- Trask, R. L., 1998, “Euskararen etorki eta ahaideak: datuen analisisa”, *Uztaro: giza eta gizarte-ziientzien aldizkaria* 26: 81-108.
- Urkizu, P., 1992, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*, Bilbao: Euskaltzaindia: Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Urkizu, P., 2003, “Balada Apokrifoen eta kritikarien saltsa-maltsez”, *Revista de Lengua y Literatura Catalana, Gallega y Vasca* 9, 333-346.
- Urquijo e Ibarra, J., 1910, “La tercera Celestina y el canto de Lelo”, *RIEV* 4, 573-586.
- Urquijo e Ibarra, J., 1922, “La crónica Iburgüen-Cachopín y el Canto de Lelo (continuación)”, *RIEV* 13, 458-482.

**6. \*Eranskinak: Testuak****6.1. Kantabriarren Kantua (Arriolabengoa 2008: 4)**

1. Lelo yl lelo lelo yl lelo	<i>Lelo yl lelo lelo yl lelo</i>
2. leloa çarac yl leloa	<i>Leloa çarac yl leloa</i>
3. Romaco aronac <sup>1</sup> aleguyn eta	<i>Los ejércitos de Roma se</i>
4. Vizcayac daroa cansoa	<i>esfuerzan y</i>
	<i>Vizcaya se lleva el campo,</i>
5. Otabiano munduko jaun	<i>Octaviano, señor del mundo,</i>
6. leco bydi Vizcaicoa	<i>escepto de Vizcaya,</i>
7. Ychasotati eta leorres	<i>por mar y por tierra</i>
8. ymyny deusco molsoa	<i>nos ha puesto cerco.</i>
	<i>Las tierras llanas son suyas,</i>
9. Leor çelayac bereac dira	<i>los altos montes inexpugnables,</i>
10. mendi tantayac leusoac	<i>cuando estamos en lugar</i>
	<i>propicio</i>
11. Lecu yronyam gagoçanean	<i>cada cual ha el ánimo fuerte,</i>
12. noc bera sendo dau gogoa	<i>poco miedo con las mismas</i>
	<i>armas</i>
13. Bildurric guychi arma bardinas	<i>les damos gran daño,</i>
14. oramayasu guexoa	<i>ante sus duros escudos</i>
	<i>más dura es la piel desnuda.</i>
15. Sojac gogorrac badyrituys	<i>Durante cinco años noche y día,</i>
16. narru biloxa surboa	<i>incesante cerco,</i>
	<i>por cada uno de los nuestros que</i>
17. Bost urteco egun-gabean	<i>moría</i>
18. gueldi bagaric pochoa	<i>cincuenta perdían,</i>
	<i>ellos eran muchos, nosotros</i>
19. Gureco bata il badaguyan	<i>pocos,</i>
20. bost amarren galdoa	<i>al final obtuvimos la tregua,</i>
	<i>en nuestra tierra y en la suya</i>
21. Aec anys ta guc guichytaya	<i>sendas justas y victorias.</i>
22. asquynyn dugu lalboa	
23. Gueure lurrean ta aen errian	
24. biroch aynbaten çamoa	

<sup>1</sup>Honako bertsioan "aronac" bezala transkribatu da forma hau, Urquijok (1922: 463) kopiaketa akats bezala hartu bazuen ere, benetako forma "armac" zela argudiatuz.

## 6.2. Andramendiko Idazkiak (Arriolabengoa 2006: 235-236 eta Mitxelena 1964: 159-161)<sup>22</sup>

= (1)Andramendico jaureguyan / (2)baguylaren<sup>23</sup> emereçi egun garrenean /(3) gure Jaunaren urte ygaroac /(4) borreseun /(5) yru yrugueta lau /(6) lecuan /(7) dagos batuta /(8)burua ysanyc / (9)Onsalu<sup>24</sup> /(10) Onsaluch /(11) guero gueyago /(12) Onsalu /(13) ta Lope /(14) ta Ochoa orren semeac escutari ascogas /(15) eguytecos baqueac /(16) Aramac Ubillos<sup>25</sup> gas /(17) Romyrochyc /(18)Artuco /(19) en artean //(20) Jaunoc aguyn[su] ta Obeylos ta ycartuco<sup>26</sup> Ulertu /(21) beralan / (22)Apa lastan Alcar biac artudabe gustioen Amorean seculaco guyçon guexto eRi egorrochi banymendadua /(23) aren<sup>27</sup> /(24) borondatearenbean Alan joso eguyen euraen caltesat =

Itzulpenaren Transkribaketa (Mitxelena 1964)

*... las quales palabras basç[onga]das bueltas a dezir en n[uest]ro castellano ro[mançe] ... hablan lo seguien[te]: En el jauregui o palacio de Andramendi, a 19 [dias] del mes de Junio, años andados del señor N[uest]ro de 564, en este lugar estaban juntos como cabeça que hera Gonçalo Gonçales, y despues del mas Gonçalo, y Lope y Ochoa sus hijos, con otros muchos escuderos para hazer las amistades y paces entre Aramac de Vbillos y Romiro de Yartua. Los señores lo platicaron y mandaron, y Vbillos e Yartua lo oyeron e obedecieron, y luego el vno al otro se besaron y abraçaron y hiçieron amigos en grçia de todos los presentes para sienpre jamas, y de no q(ue)brantar esta amistad, paz y treguas hechas y puestas en t(iem)po del mundo so pena de malos honbres traydores y agenos de sus tierras y natural, y como tales sean desterrados a boluntad de su capitan y cabeça, y ansi lo consentieron y llebaron por sentençia cada vno dellos p(ar)a su daño. En el segundo ynstrumento dize ansi:*

(25)Andramendico Jaureguyaren Aurreco Arextian Elexearen Aldean garagarrilaren ogueta borrs<sup>28</sup> egungarrenean /(26)dira ygaro gure Jangoycoaren Jayaçea Urteric sazpi<sup>29</sup> etaeun /(27) berroquey etasorçi Aurrean dagoçala Oña enganean Ochoa Onsaluch /(28) burua dala /(29) Aren Hurrengo Anage Lastanac /(30) Anso /(31) Joane /32) Onsalu //(33) baygueyago onenbean /(34) Escutariric Asco darda bacoçac Euren baçarrean //(35) etorri san Aurqui /(36) Laster /(37) Atetirean Eneco Pagoetantayco<sup>30</sup> bere arma gueçi barriacas /(38) baesan Eçe bere Armaçarrac Ausi taletorra /(39) bere Ayde naguçi IbarçoyengoEn Aurrean Eguyn Eusan Achacaba Andia gaytic /(40) Ari ychita letorra /(41) Ona (42)/ gura dabela /(43) Arena ysan /(44) Ybarçoyengoac leMan Artean berea //(45) gustioc Artudabe bereçat oraynganyc betico /(46) Eneco Pagoetantayco da Uacheguyn ta baesoan bere naguçiari legues Ochoa Onsaluch /47)Agur Agur /

<sup>22</sup> Zenbaketa nirea da.

<sup>23</sup> Gaietik ezabatuta ageri da hitz hau.

<sup>24</sup> Gaietik ezabatua hau ere.

<sup>25</sup> Aurretik beste hitz bat zetorren idatzia, eta hura ezabaturik idatzi zen *ycartuco*, baina zaila da asmatzen zein zen aurreko hitz hura.

<sup>26</sup> Hasieran *yartuco* idatzi zuen Ibarçuenek, baina segidan ezkribauak berak zuzendu eta eman dugun aldaera ezarri zuen.

<sup>27</sup> Gaietik ezarrita. Jatorriz *en* zegoen idatzirik.

<sup>28</sup> Ibarçuenek *bost* idatzi zuen lehenengo eta gaietik honela zuzendu.

<sup>29</sup> Hasieran *yru* zioen, baina Ibarçuenek gaietik zuzendu zuen.

<sup>30</sup> Hasieran *Pagoeta* idatzi zen, baina ondoren zuzendu egin zen eta izen agertzen zen aldioro *Pagoetantay* jarrita zuzendu zen.

## Itzulpenaren Transkribaketa (Mitzelena 1964)

...quieren dezir estas [pa ]labras lo seg(uyente): En el robledal que esta en la delantera del palacio o jauregui de Andramendi, junto a la ygl(esi)a, a 25 dias del mes de Julio, p[a]sados ya 784 años q(ue) N(uest)ro Dios naçio, estando presentes ençima de sus pies Ochoa Gonçales siendo cabeça de todos los demas de su linage, y despues del muy çercanos sus her(ma)no<s> queridos y amados, Sancho y Joan y Gonça[lo] con mas gente debaxo, y despues dellos muchos escuderos de lanza larga en puño... Dize adelante mas: Estando todos ellos junt[os] en su junta gen(er)al y acostumbrada, luego se les vino al[li] de afuera p(ar)te Yñigo de Pagoeta con su lanza y dardo nu[ebo], y les dixo q(ue) sus armas antiguas abi[a] rronpido e quebrado delante de su pariente mayor[...] e grande pesar quel abia hecho, y que ansi alli a el dexando a su pariente mayor, y que quiere por suyo de Ochoa Gonçales mientras y hasta y en tanto que su primero pariente mayor, el de Ybargoyen, le satisfaçia e bolbia a dar lo que hera suyo, y con esto todos los presentes lo tomaron por suyo propio desde alli para sienpre, y Yñigo de Pagoeta ha plaçer y contento de todo ello, y ansi como a su cabeça y mayoral y en lugar de reconoçimiento dixo a Ochoa Gonçales su nuevo pariente mayor: Ochoa Gonçales, agur, agur...

**6.3. Bretoniako Kantua (Sarasola 1983: 78)**

- 1- Salinasgoa Conde : Guztien da jabe,
- 2- Guipuzcoa herrian : on guztien burua
- 3- Guztioec digoe : borondatez seguicen
- 4- Gamboarraquin : Oñaztarroc conforme
- 5- Vizcaitican vere : aconpañacen debe
- 6- Bretoe gaiztoen : Becatuac castigacen.
- 7- Conde andiorrec : juntaduditu laster
- 8- Donostiaco yrrian : Passagen embarcatu
- 9- Onci andiac chipiaquin : flota andia atera
- 10- Franciaren bistan : Ciudadea dirudi.
- 11- Donostiaco murruan : Islaren goyenean
- 12- Abbade guztia : daode procisioan
- 13- Mila bendicio : egozten digoela.
- 14- Donzella guztia : daode belaurico
- 15- Jaungoicoa debeela : herreguten
- 16- Deguiola eman : Conde laztanari
- 17- Vitoria andia : gaiztoen contra
- 18- Vicicea debala : onrarequin seguru,
- 19- Bretonia guztia : Vencituric datorren
- 20- Conde galantori : Guipuzcoa herrira
- 21- Non yçango baita : Beti becela buru
- 22- Nobleza guztiaren : aniz estimatua.
- 23- Pobluren onrra : danac
- 24- Guztia daduzca : vere aguintean.
- 25- Guztioe dioe : Amar vider amen.

**6.4. Annibalen Kantua (Urkizu 1992: 62-64)**

**1**

Xori kantari ederra,  
 Non haiz aspaldi kantatzen?  
 Hire boza dik denbora  
 Nik ez dudala aditzen  
 Ez egunik, ez horenik,  
 Nik ez diat iragaiten,  
 Non ez hitzaitan oroitzen.

**2**

Gure mendien oinetan  
 Afrikan sortu gizona  
 Zohan galdez soldadutan,  
 Etzen gure ezaguna.  
 Romano ez zuten bilhatzen,  
 Gure aiten gidal ona,  
 Zutelarik ezagutzen.

**3**

Gure gazteak oihuka,  
 Annibali hasi ziren:  
 Ethortzen gaituk murruka  
 Bai hire ustearen,  
 Onak bagare hirekin,  
 Guanen kontra munduaren,  
 Romanoen gaixtuekin.

**4**

Ilkhi ginen oro hartan  
 Lo zaudela emazteak,  
 Bere haurrak bularretan,  
 Xakhur etxe zaintzaleak,  
 Etsaian eman zaingotan  
 Guk ixil hetsiz zatheak,  
 Harin baikinaren zainetan.

**5**

Asko egun da geroztik  
 Iragan, guk gabiltzala,  
 Zalhuak izanagatik,  
 Loz urrun bizi garela,  
 Aitzindari Afrikatik,  
 Phentsa Alpak bezala,  
 Gibelat nonbait utzirik.

**6**

Sarthu gare Italian,  
 Ebroko gaiak iduri.  
 Bazterrak dire gaindian,  
 Urre eta zilhar jari,  
 Hain aberats den Herrian  
 Izarra ez zait ageri,

Ez ama ene nahian.

**7**

Diote ilabethean  
 Romako hiri handian  
 Sarthuz eskua urrean  
 Saroa dugula aisian,  
 Bethiko oren honean:  
 Nahiago dut mendian  
 Maite utzi urrunean,  
 Bilhatu ibiliz ganian

**8**

Xori kantari ederra,  
 Kanta zak, kanta emeki,  
 Ondikoz gaizki beharra  
 Munduan nahiz bizi naski.  
 Utzi dut haran ederra  
 Nigarrik ez duket aski  
 Utzirik hango izarra.